

**Yllana taldea**
'666' lanak txalo zaparrada jaso zuen
KULTURA, 23

**Preferenteko hiru taldeek irabazi dute**
UDAk garaipen garrantzitsua lortu du Real Unionen aurka
KIROLA, 12-13



**Chambao Jamen**
Aretoa bete egin zuten zapatuan
KULTURA, 20-21

ASTELEHENEKO
Goienkaria
ASTELEHENA • 2005eko urriaren 17a • 2. urtea • 74. zenbakia • 0,90 euro

# Landa eremuko emakumeek duten esku-hartzea aldarrikatu dute

*Jardunaldia egin zuten zapatuan landa eremuko 300etik gora emakumek, Gandiaga Topagunean*

Gipuzkoan erroldatuta 11.533 nekazal-abere ustiatze daude eta horietatik 3.100etan emakumeen esku dago titularitatea. Hori zenbaki hutsa ez dela erakusteko, eta landa eremuan emakumeek duten garrantzia aldarrikatzeko, hamargarrenez egin zen zapatuan Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko eguna. Aitzakia horrekin Mendikoik Emakumeak Landa Eremuan jardunaldia antolatu zuen Gandiaga Topagunean. Hirurehun emakumetik gora batu ziren, eguerdira bitartean iraun zuen jardunaldian.

Jaurlaritzatik Gonzalo Saenz de Samaniego eta Gabriel Maria Inclan izan ziren hizlari, bai eta Izaskun Bilbao legebiltzarreko lehendakaria ere. 2-3

**ASOZIAZIONISMOARI BAI**
**Landa Eremuko emakumeen asoziazionismoa da etorkizunerako giltza**

**KANPAINA BEREZIA**
**Josune Bereziartu eskalatzaileak aurkeztu zuen 'Emakumeak Landa Eremuan' kanpaina**

**TITULARKIDETZA**
**Nekazaritza politikaren legeak emakumearen titularkidetza jasoko duela iragarri zuen Samaniegok**

**OSASUN AZTERKETAK**
**Inclan Sailburuak esan zuenez, mamografia gutxiago egiten dituzte landa eremuko emakumeek**



AITOR LIZARRALDE

## KILOMETROEN AGUR BAZKARIA EGIN DUTE ARIZMENDIKOEK

Ia 500 algun batu ziren Almen Ikastolako kiroldegian zapatu eguerdian. KMK '05eko antolatzaileek bazkaria antolatu zuten jaiaren hariara lanean jardun duten boluntarioei egindako lana eskertzeko. Horrekin batera, urtebetez lan handia egin duten antolatzaileetako zazpi ere omendu zituzten. 5

# Lekuek marka bikaina egin du

*Lehenengo euskalduna izan da Hawaiiko Iron Man proban*



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Bukatzea zen bere helburua, baina uste baino marka hobea egin du Antxintxika taldeko Xabier Lekue triatletak. Helmugan sartzen lehen euskalduna izan da 9 ordu eta 34 minututan. Hamar ordu eta erdiko bere marka hobetzea ere lortu du.

3.800 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro antxintxika egin ondoren. Zapatuan jokatu zuen Hawaiin munduko txapelketa den Iron Man proba eta 197. sailkatu zen Lekue. Orain, datorren domekan Hawaiin bertan jokatuko den Mendiko Bizikleta Munduko txapelketa prestatzen dihardu gogotsu trintxerpearrak. 17

## MCC urrezko ezteiak ospatzen hasiko da eguenean 11

## 12 euskal artista bihar, Espaloian, Lauaxetaren omenez 26

# GEUREAN

• Lau erkidegotako gastronomia dastatu zuten atzo aretxabaletarrek | 4
• Ehundik gora perretxiko mota erakutsi zituzten atzo Eskoriatzan | 8



**Patxi Meabe Justizia eta bakea elkarteko kideak hitzaldia egingo du bihar Bergaran** | 7

**LANDA EREMUKO EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

**JARDUNALDIAK** | GANDIAGA TOPAGUNEAN ELKARTU ZIREN ZAPATUAN, 'EMAKUMEAK LANDA EREMUAN' IZENEKO JARDUNALDIAN

# Landa eremuko emakumeak omentzeko jaia egin zuten zapatuan

*Zapatuan izan zen Landa Eremuko Nazioarteko Eguna eta jaia ospatzeko Gandiaga Topagunean elkartu ziren landa eremuko 300 emakumetik gora*

Marijo Deogracias

Mendikoi EAEko landa eremuen prestakuntza, sustapen eta garapen integraleko zentroak antolatu zuen *Emakumeak Landa Eremuan* jardunaldia. 300 emakume baino gehiago elkartu ziren Gandiaga Topagunean, hara deitu zituzten agintari eta adituen hitzaldiak entzuteko. Andoni Aizpuru izan zen zeremonia-maisua. Hasteko, hitzaldia euskaraz jarraitu nahi zuenak, "euskarazko itzulpen zerbitzua" bazegoela azaldu zuen eta nahi zuenak eskatzeko gogoratu zuen.

**OSASUN IKERKETA**

Iaz Gasteizen egin zuten jardunaldia eta bazegoen erakundeek orduan hartutako konpromiso batzuen gaineko ikusmina. Horiek azaltzeko ardura izan zuen Nekazaritza, Arrantza eta Abeltzaintza sailburu Gonzalo Saenz de Samaniegok. Hala ere, harridura gehien sortu zuen ponentzia Gabriel Maria Inclan Osasun Sailburuak aurkeztu zuen, Yolanda Perez Osasun alorreko ikerketa eta estatistika arduradunaren laguntzarekin. Landa ingurunean bizi diren emakumeen osasunaren gaineko ikerketaz aritu ziren. 2002an egin zuten ikerketa, zozketa bidez aukeratutako 5.200 familiatan, eta landa eremuko eta hirietako emakume eta gizonezkoen osasunaren gaineko datuak batzen ditu ikerketak. Bost urterik behin egiten dute. Emaitzarik aipagarriena, landa eremuko emakumeen gehiegizko pisuaren mantentzea izan zen.

Jardunaldiarekin amaitzeko, mahai gainera igo ziren klown bikoteak ere euren saioarekin hasteko aitzakia legez erabili zuen kontu hori eta, bide batez, Inclan sailburuari koloreak gorritzeko: "Zera, jardunaldi batera zatoz, jai batera zatoz, eta gizena zaudela esaten dizute!". Barre algarak entzun ziren emakumeen artean.

**2002ko osasun ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten**



AITOR LIZARRALDE

Gandiaga Topaguneko areto nagusia bete zuten zapatuan emakumeek.

**LANDA EREMUAREN OSASUNA**

Landa eremuaren ikuspegi zabalagoa erakutsi zuen Lizarrako alkate Maria Jose Fernandezek. Ordubetez aritu zen landa eremuak jasan dituen eraldaketez eta landa eremuko emakumeen lana aldarrikatzen. Hor daudela erakutsi beharraz aritu zen, ezinbestekoa baita etorkizunerako.

**KANPAINA AURKEZPENA**

Mendikoik *Emakumeak Landa Eremuan* kanpaina aurkezteko aprobetxatu zuen jardunaldia. Horretarako Josune Bereziarturen laguntza izan zuten. Eskalatzaileak, urduri samar, bere eskuen eta baserriko emakumeen eskuen gogortasuna –eta babak– alderatu zituen. "Esku landu, zaildu eta gogortuak ditugu egiten dugun lanagatik. Emakume apalak zarete eta lanera ohituak eta urte askoan ez dizuete omenaldirik egin. Horregatik ohore handia da niretzat merezi duzuen omenaldian parte hartzea", esaten amaitu zuen eta landa eremuko emakumeei txalo egin zien.

Jardunaldiaren amaieran luntxa zuten zain.

**• ARANTZAZUKO JARDUNALDIETAN HARTUTAKO HAINBAT IRUDI**



**GOI MAILAKO KOLARABORAZIOA.** Josune Bereziartu eskalatzailea izan zen *Emakumeak Landa Eremuan* kanpaina aurkezten. Aitortu zuenez, berarenak ere "gogortutako eskuak dira", baina ez zituen erakutsi.



**KLOWNEN UMOREA.** Hizlariek esandakoari umorez begiratu zioten jardunaldiaren amaieran bi klownek. Hasteko, agintariak mahaitik kenduarazi zituzten eta hurrengo mahai gainera igo ziren, bistarago egoteko.



**LUNTXA.** Jardunaldiarekin hasi aurretik kafea eta ostean, berriz, luntxa eskaini zieten Gandiaga Topagunera igo ziren emakumeei. Terrazara atera ziren eguzkiaren berotasuna aprobetxatzeko.

**MARIA JOSE FERNANDEZ** | TEDER TOKIKO EKINTZA TALDEKO PRESIDENTEA ETA LIZARRAKO ALKATEA

# “Emakume baserritarrak langile ikusezinak izan dira”



AITOR LIZARRALDE

M.D.

**Lizarrako alkatea da Maria Jose Fernandez, baina Lizarraldeko Tokiko Ekintza Taldeko lehendakari lanetan aritu zen, berea legez landa eremuen gainean.**

**Zer da Landa Eremua?**

Ez dago horren definizio zehatzik, baina beti lotzen da herrixkekin, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrixkekin. Herri horietan ekintza falta egoten da eta migrazioa gertatzen da eskualde buruetara edo probintziako hirietara.

**Bestelako arazorik baduzue?**

Bai, badira landa eremuko herrien ezaugarri gehiago, esaterako, komunikazioen eskasia, nagusien mugikortasun eskasa, gizartearen zahartze handiagoa, bigarren etxebizitzen kokagune izatea… Batez ere emakumeei zuzendutako zerbitzuekin lotutako giza-azpiegitura eskasiak nagusi izaten jarraitzen du gune horietan. Hala ere, arazorik nabarmenena emakume gazteen gabezia da, horrek biziraupena arriskuan jartzen baitu.

**Nola definituko zenuke landa eremuko emakumeen egoera?**

Emakumeek ohiko rolak apurtu behar izan dituzte eta lan handia dago jarrera eta balore-ak aldarazten. Denbora luzez emakume baserritarrak langile ikusezinak izan dira eta etxeko lanak eta baserrikoak egin dituzte. Azkeneko urteetan bereiztu egin dira landa eremuei zuzendutako estrategia publikoak eta nekazaritza politikak eta horrek izaera eman dio landa eremuari.

**Ze aukera ditu emakumeak landa eremuan aritzeko orduan?**

Aukera bi ditu; batetik, baserri giroarekin apurtu eta bestelako lanetan hasi landa eremuan bertan eta bestetik, etxeko eredu tradizional ez produktiboari eutsi, hau da, baserrian lan egin, baina gizarte segurantzan agertu barik. Baina badago beste aukera bat: proiektu propioa garatzea erabakitzea. Horretan, gainera, nekazaritza legeak jasoko duen titularkidetzak asko lagunduko du. Baina emakume ekintzaile horrek hiru arazo nagusi gainditu behar ditu, lege kontuez gainera: hezkuntza (teknologia berriek laguntzen dute), asoziazionismoa bultzatzea eta botere publikoen inplikazioa.

**“Emakumeendako giza azpiegitura eskasia nagusi da oraindik”**

**“Lurralde erakundeen laguntasuna ezinbestekoa da”**

**Asoziazionismoak zertan lagundu dezake?**

Eskola arazoak, aisialdirako ekintzak antolatzea, hezkuntza programak eta herriaren hobekuntzarako ekintzak dira esaterako, elkarrekintzan garatu daitezkeen arloak. Gainera, elkarte horien lan onak, errekurtso ekonomikoak ekar ditzake. Nafarroan, esaterako, Futura programari esker –6.000 emakumek parte hartu programan– 42 elkarte aktibo aritu dira eta emakumeen 34 enpresa sortu dira.

**Landa turismoa ere aipatu duzu zure hitzaldian. Ze leku dauka jarduera ekonomiko horrek?**

Emakumea izan da arlo horretan aitzindari eta horrekin batera gure herriak zainduta egotea eta sortzen diren beharrizanei erantzunak emateko bidea bultzatu dituzte. Horri gehitu egin behar zaio ingurumen turismoaren gorakada, non emakumeak lan arlo berriak jorra ditzakeen: natura eskolak, naturaren interpretazio zentroak…

**Europa berriaren aurrean, zer leku izango dute elkarte horiek?**

Lurralde erakundeen laguntasuna ezinbestekoa izango da eta elkarteek lagundu egin beharko diete erakundeei landa eremuen garapena bultzatzen. 2007tik aurrera Europatik datozen dirulaguntzak asko gutxituko dira, gehiagoren artean banatu behar izateagatik, hortaz, antolaketa ezinbestekoa dugu.

## • JARDUNALDIAN PARTE HARTU ZUTEN HIZLARIETAKO BATZUEI HARTUTAKO BERBAK



**GONZALO S. DE SAMANIEGO** |
NEKAZARITZA SAILBURUA

**“Nekazaritza politikaren lege berrian jasota dator emakumeen titularkidetza”**

“Iaz Gasteizen hartutako konpromisoei jarraituz, laster aterako dugu nekazaritza politikaren legea eta han jasota dator emakumearen titularkidetza aintzat hartzea. Horrekin batera, Aldundiekin batera garatu ditugun gazteria planetan emakumezko gazteentzako dirulaguntza gehiago aurreikusita daude eta horrekin batera, Europako laguntzen etorkizuna daukagu aztergai, 2006-2007tik aurrera ikuspegi berriarekin aritu beharra baitaukagu”.



**YOLANDA GRANJA** |
GURE SOROA ELKARTEA

**“Beste herrialdeetako emakumeekin harremanak estutu behar ditugu”**

Gure Soroa Arabako emakume nekazariak batzen dituen elkartea da. Yolandak azaldu zuenez, “Formazioan aritzen gara gehien bat eta horren alde egiten dugu landa eremuko mahaian parte hartzen dugunean. Ordezkaritza txikia dugu mahai horretan, baina gutxiengoa izan arren interes handia daukagu beste herrialdeetako emakumeekin hartu emanak estutzeko; ezinbestekoa da hartu-eman horiek bideratzeko zubiak sortzea”.



**EDURNE IBARROLA** |
ARABAKO EMAKUME SAREA

**“Etxekoandreen lana duintzea dugu helburu Etxezain programarekin”**

Arabako landa eremuko emakumeen sarean hamar elkarte daude; guztira 900 bat emakumezko-bazkide. Edurnek azaldu zuenez, “Garraio publikoaren eta egunekko zentroen arazoak landu ditugu gehien bat eta hasita gaude etxeko lanetarako emakumeek dituzten arazoak aztertzen, lana eta familia bateratzeko. Etxekoandreen lana duintzea dugu helburu eta gizarte segurantzan sar daitezen lan egiten dugu; horretarako da Etxezain proiektua”.



**GABRIEL MARIA INCLAN** |
OSASUN SAILBURUA

**“Landa eremuko emakumeak gehiago joaten dira medikuarengana”**

2002an egindako osasunaren inkestan jasotako datuen laburpena egin zuen sailburuak: “Ez dago osasun mailan landa eremuaren eta hirietako gizartearen artean alde nabarmenik, baina aipatzekoa da landa eremuko emakumeak obesitate gehiago dutela. Gainera, kolesterol eta tentsioa maizago neurtu arren, 50 urtetik gorako emakume gutxiagok egiten ditu ohiko mamografia eta zitologia azterketak, eta hori konpondu beharra dago”.



**IZASKUN BILBAO** |
PARLAMENTUKO LEHENDAKARIA

**“Erakundeek beharrezko azpiegiturak eta zerbitzuak jarri behar ditugu”**

“Erakundeetatik ez diogu nahiko garrantzi eman landa eremuko emakumeek duten garrantziari. Eurek landa eremua lagaz gero, gure baserriak hilko dira. Ezinbestekoa dugu bistaratzea emakume baserritarren lana eta erakundeek horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak jarri behar ditugu, hirietan legez, landa eremuetan ere emakumeek lana eta etxea uztartzeko arazorik izan ez dezaten”.

**GASTRONOMIA ETA FOLKLORE FERIA** | BOST ERKIDEGOTAKO ZORTZI POSTU EGON ZIREN ETA HIRUREN FOLKLOREA EZAGUTU GENUEN



AITOR LIZARRALDE

Etxera eroateaz gain, jakiak dastatzeko aukera ere izan zen eta herritar ugarik egin zuten hori.

# Txitxi-burruntzia, olagarroa eta Errioxako ardoa izan ziren jakirik preziatuenak

*Jesus Mari Errastik etxean egindako patxaranak eroan zuen lehen saria. Aratzen zozketan, 1.575 zenbakia izan zen saritua*

Monika Belastegi

Saltzaileak, herritarrak zein antolatzaileak; guztiak zeuden pozik atzo, domeka, Aretxabaletako IX. Gastronomia eta Folklore jaian. Saltzaileek aitortu zutenez, "ondo saltzen delako eta herritarrak oso atseginak direlako"; herritarrak, "beste erkidego batzuetako jaki goxoak dastatzeko eta folklorea ezagutzeko aukera paregabea delako", eta antolatzaileak, –Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa, Zaraia Mendi taldearen eta Dorleta eta Kixkor tabernen laguntzarekin– "guztia oso ondo joan delako, eguraldia lagun izan dugulako eta jende asko gerturatu delako", Martin Garaik, kontsumitzaileen bulegoko ordezkariak azaldu zigunez.

Herriko plazan egin zuten feria. Aterpean jarri zituzten postuak, plazaren bi aldeetan, eta erdian, folklore taldeen emanaldietarako eszenatokia.

Bertaratutakoek askotarikoak dastatzeko eta erosteko aukera izan zuten, hala nola: Errioxako ardoa, piperrak, menbriloa, ogia, erroskilak; Gaztela-Leongo hestebeteak eta Palentziako eztia; Galiziako olagarroa eta albariño ardoa; eta Extremadurako txorizoa, eta urdaiazpikoa, besteak beste.

Etxerako erosketak egiteaz gain, esandako jakietako asko dastatzeko aukera ere izan zen eta arrakastarik handiena, zalantzarik gabe, Arrasateko Corazon de Encina Extremadurako elkarteak eroandako txitxi-burruntziek, galiziarrek eroandako olagarroak eta Errioxako ardoak izan zuten.

**PATXARAN LEHIAKETA**

Azokan XI. patxaran lehiaketa ere jokatu zuten. 20 lagunek hartu zuten parte etxean egindako patxararekin. Lehen saria jaso zuen Jesus Mari Errastik, bigarrena, Jose Javier Irurek eta hirugarrena, Gurutze Gomezek.

**• SALTZAILE ZEIN HERRITARRAK POZIK AZOKAREKIN**



**TINA ETA CARLOS** |
TRIZIO

**"Gastronomia ezagutzera emateko aukera ona dira halako azokak. Ondo saltzen da hemen"**

Duela sei urte etorri ziren azkenekoz Aretxabaletako azokara eta oroitzapen ona zutenez, aurten ere etortzea erabaki dute. "Oso ondo gaude hemen, gastronomia ezagutzera emateko aukera ona dira halako azokak eta hemen nahiko ondo saltzen da, gainera", esan ziguten senar-emazteok. Erosleek lehenengo eta behin prezioari begiratzen diotela ere gehitu zuten.



**JOSE LUIS** |
ARRASATE

**"Urtero etortzen naiz; oso gustura, gainera"**

"Urtero etortzen naiz", zioen Jose Luisek. "Gainera, Arrasateko Corazon de Encina elkarteko kide naiz, eta gustuko duk halakoetara etortzea", aitortu zuen. Bestalde, "aurten postu gutxiago dagoelako inpresioa" ere bazuela gehitu zuen.



**SIMON ETA JESUS** |
ARETXABALETA ETA BERGARA

**"Txitxi-burruntzia, Errioxako ardoa eta olagarroa probatu ditugu eta oso onak daude"**

Zaraia Mendi elkartekoak dira eta patxaran lehiaketaren antolakuntzan laguntzen dute, besteak beste. Hala eta guztiz ere, izaten dute astia jakiak zein edariak dastatzeko. "Txitxi-burruntzia eta Errioxako ardoa gustatu zaizkit gehien", esan zigun Jesusek. Simoni, berriz, "olagarroa oso ona" zegoela iruditu zitzaion. Giroari dagokionez, biek "oso giro polita" zegoela esan zuten.

**• EGUNAK EKARRITAKOAK**



**GASTRONOMIA.** Extremadurako, Errioxako, Galiziako eta Gaztela-Leongo jakiak erosi eta dastatzeko zortzi postu jarri zituzten. Horrez gain, Aratz elkarteak jarritako pintxoena ere bazegoen.



**FOLKLOREA.** Gaztela-Leongo folklorea ordezkatzen Laudioko San Fernando taldea etorri zen; Errioxa ordezkatzen, Rondecilla Logroñesa taldea eta Galizia ordezkatzen, Bilboko ordezkariak etorri ziren.

URKI
Etxez Etxeko Laguntza

Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza eskaintzen dugu

Interesatuok deitu: 685 70 06 39 telefono zenbakira



AITRO LIZARRALDE

Irudian omenduak, pozik, jasotako oroigarriarekin (Josu Velasco eta Joxe Pagaldai falta dira).

# KMK '05erako lanean aritu diren zortzi lagun omendu dituzte Arizmendikoek

*Zapatuan egindako bazkari jendetsuan jaso zuten omenaldia antolakuntzan ibili diren lagunek eta Joxe Pagaldai txondorgileak*

M.B.

Omenaldi hunkigarria jaso zuten zapatuan Andoni Mugikak, Agurtzane Elkorok, Josu Velascok, Iker Serranok, Igor Elortzak, Hilario Seinek eta Marijo Belokik. Guztiek urriaren 2an, Leintz bailaran izan zen Kilometroak 2005 jaia antolatzen jardun dute. Lehenengo bostak koordinazio lanetan aritu dira; beste biak, segurtasun eta arropa arloan. Lehenek, oroigarri gisa, bakoitzaren karikatura jaso zuten; besteek, KMK '05en anagrama. Horiez gain, Joxe Pagaldaik ere omenaldia jaso zuen; izan ere, berak egin zuen jai handira hurbildu zirenek ikusi ahal izan zuten txondorra. Guztiei, egindako lana eskertu nahi izan zieten Arizmendikoek zein bazkarian batutako herritarrek.

**LANEAN JARRAITUKO DUTE**

Almeneko kiroldegian jaso zuten omenaldia, esker bazkarira joandako ia 500 lagunen aurrean. Izan ere, Arizmendikoek bazkari horren bidez eskerrak eman nahi izan dizkiete jaiaren bueltan jardun duten 700 boluntarioei. Jaiari bukaera emateko modua ere izan da bazkaria; ez, aldiz, agur esatekoa. Arizmendikoen esanetan "jaia antolatzeko sortu ziren hamabi lantaldeek lanean jarraituko dute aurrerantzean. Aurtengo Kilometroetarako sortu zituzten hainbat ekitaldik jarraipena izango dute aurrerantzean ere".

# Debagunerekin 180 bat lagun joan ziren atzo, Nafarroa Oinezera

*100.000 lagun baino gehiagok egin zuen atzo bat Iñigo Aritza Ikastolaren eta euskararen alde Altsasun*

A.G.

Eguraldia lagun, Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolak milaka eta milaka lagun batzeko ametsa bete du. Tartean ehunka debagoiendar ere han izan ziren atzo, Nafarroako ikastolarekin bat eginez. Asko euren autoetan joango ziren eta beste asko autobusean. Debagunek ibarreko euskara elkarteekin antolatutakoetan, esaterako, 180 bat lagun joan ziren. Hiru autobus bete zituzten (bat bikoitza) eta herri handienetatik igarota, jendea batzen joan ziren.

Arizmendikoek baino zorte hobea izan zuten atzo Iñigo Aritza ikastolakoek eta 100.000 lagunetik gora batu zen.

Egunean zehar bi omenaldi nagusi egin zituzten, jaiaren 25. urtemugaren barruan; bata, orain arteko Nafarroa Oinezak antolatu dituzten 17 ikastolei, eta bestea, Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiako kide zenduari "Nafarroan euskararen, euskal kulturaren eta ikastolen alde egindako lanarengatik".

Errekonozimendu horiekin batera, beste hainbat ekimen eta ikuskizun izan ziren egun osoan zehar: herri-kirolak, pailazoak, trikitia, txalaparta, rocka, folka, popa, bluesa eta rantxera musika, txarangak, haur jokoak, bertsolariak, fanfarreak, pottokak, ekintza tailerrak, zesta-punta eta kale animazioa, beste batzuen artean.




ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Debagunek antolatutako autobusetako bat irten aurretik.

# Bedelkarrek asteon esango ditu zozketako sarituak

*Zapatuan egin zuten zozketa eta asteon esango dute zein izan diren 500 euroko bonoa jasoko duten bi zortekoak*

M.B.

Zapatu goizean egin zuen Bergarako dendarien elkarteak, Bedelkarrek, 500 euroko bi erosketa bonoen zozketa. Jai giroan egin zuten, gainera, eta horretarako, umeendako jolas gunea antolatu zuten San Martin plazan. Bi zortedunen izenak asteon emango dituzte jakitera. Bestalde, Bedelkarrek gogora ekarri nahi die herritarrei Bedelkarreko dendetan egindako erosketek %5eko beherapena izango dutela urrian elkartearen txartela erabiliz gero.



AITOR LIZARRALDE

Zapatuan egun osoz egon zen jolas gunea plazan eta ume asko batu ziren.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Duela bi aste hasi ziren araztegia eraikitzeko lanak.

# Hasi dira Bergarako ur-araztegia eraikitzeko lanak

*Bergara, Antzuola eta Elgetako urak jasoko ditu Mekolalde auzoan egiten hasi diren ur zikinen araztegiak*

M.B.

Hasi dira Bergaran, Mekolalde auzoan, araztegia eraikitzen. Amenabar eta Pridesa enpresek dihardute zeregin horretan eta bi urteko epea dute lanok bukatzeko. Bergarako urez gain, Antzuola eta Elgetako urak ere garbituko ditu Mekolaldeko araztegiak. 13.300.000 euroko aurrekontua du eta Eusko Jaurlaritza egingo da horren kargu.

Lokatzen tratamendurako hiru baltsa izango ditu. Hala, etorkizunean tratatuko den uraren bolumena handitzeko aukera dauka, nahiz eta kopuruan nabarmen gora egin. Prozesu biologiko eta fisikoen bidez materia organikoa deuseztatzeko puntako teknologia erabiliko du araztegiak. Prozesu horretan sortuko den biogasa berrerabili egingo dute energia sortzeko. Energia horrek sistema bera elikatuko du. Azkenik, filtro prentsetako deshidratazio metodo konplexu batek lokatza sikatu egingo du, handik, baimendutako eta kontrolatutako zabortegietara eramateko.

**MEKOLALDE DORREA BASERRIA BIRGAITUKO DUTE**

Araztegia eraikitzeko lanon barruan, araztegiaren ondoan dagoen Mekolalde Dorrea baserria birgaitu egingo dute eta araztegiaren kontrolgune bihurtuko dute. Aurrekontu berean, zubi berria ere egingo dute. Zubia Deba errekaren gainetik igaroko da eta araztegiaren ondoko industria gunera joateko balioko du.

Eraikitze lanok bukatzen dituztenean, bi urte barru, Gipuzkoako Urei emango die instalazioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Ordenazio departamenduak. Hori horrela, Gipuzkoako Urak arduratuko da Mekolaldeko araztegiaren ustiapenaz.

# Eguzki-erloju digitala eta beste asko ikusteko aukera egon zen Oñatin

*Eguzkiarekin ordua ematen duten tramankulu bitxiak aurkeztu zituen zapatuan Esteban Esteban irakasleak*

J.B.

Esteban Esteban irakaslearen eguzki-erlojuen erakustaldia egin zuten zapatu eguerdian Oñatin, Gaztelekuko 10. urteurrenaren ospakizunen barruan. Tramankulu bitxi eta harrigarriak erakutsi zituen erlojugileak, berak eta bere ikasleen artean eraikitakoak gehienak. Euskal Herriko eguzki-erlojugile garrantzitsuenetakoa dugu Esteban eta 20 urtean zehar benetan erloju bereziak egin izan ditu. Horiek guztietatik hamar bat erakutsi zituen Oñatin zapatuan, Ilatargi Astronomia Elkarteak gonbidatuta.

Gailu guztietatik, munduan bakarra dena ere aurkeztu zuen Estebanek: eguzki-erloju digitala. Kontraesana badirudi ere, zenbakiz adierazten ditu orduak eguzki-erloju horrek eta berak azaldu zuenez, erlojurik kuttunenetakoa du hau.

**IKERKETA OINARRI**

Berak egiten ditu aparailuak, eskuz eta material arruntekin: plastikoa, egurra, kartoia... baina azkenaldian zuntz-optikoz egin dituen erlojuak ere erakutsi zituen. Lan irudimentsu eta interesgarriak dira zientzialari honenak, eta oñatiar asko gerturatu zitzaizkion galderak egitera. Eguzkia laino artean sartu eta irten bazebilen ere, erlojuek ondo bete zuten euren lana. Sestaoko Institutuko irakasle izanda, gainera, bere eskoletarako erabiltzen ditu gailu hauek, eta zapatuan ere azalpen saio txikitxo bat egin zuen, interes handia piztu zuten-eta tramankuluek.



AITOR LIZARRALDE

Esteban, haurrei erlojuari buruzko azalpenak ematen.

# EHU eta Oñatiko unibertsitatea

A.G.

Lankidetza Hitzarmena sinatu dute Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Hitzarmenaren arabera,Oñatiko unibertsitatean 1990. urtetik ematen duten Lege soziologiaren nazioarteko masterrak titulazioa izango du arrerantzean, EHUren laguntzarekin. Hitzarmena sinatu zuten EHUko errektore Juan Ignacio Perezek eta Josu Sagastik, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen Patronatuko presidente eta Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak.

**PUNTAKO IKASKETAK**

Lege Soziologiako Nazioarteko institutuaren masterrak urtebeteko iraupena du eta mundu mailan oso ezagunak diren irakasleek ematen dituzte eskolak, ingelesez. Ikasturteko 20-25 ikasle inguruk hartzen dute parte, jatorri oso ezberdinekoak : Europako dozena bat herrialde, Asia, Afrika eta Amerika.



JULEN IRIONDO

Juan Ignacio Perezek eta Josu Sagastik sinatu zuten hitzarmena egubakoitzean.

Giza kristautasunaren barruan kokatzen da Justizia eta bakea elkartea eta elkarte autonomo horretan ari da, Madrildik iritsi zenetik, Patxi Meabe. Zientzia Politikoak eta Soziologia ikasi zituen han eta irakasle legez aritu da harrezkero. Gaur egun ere ematen du klaserik, eta Justizia eta bakea erakundearen hileko buletinaren ardurarekin uztatzen ditu, besteak beste. Martitzenean Bergarako Miguel Altuna Institutuan izango da, 19:30ean, *Normalizazioa eta bakegintza Euskal Herrian* berbaldia egiten, San Joxepek gonbidatuta.

**PATXI MEABE** | JUSTIZIA ETA BAKEA ELKARTEKO KIDEA

# “Bi arazo oso delikatu daude bakegintzan: presoak eta biktimak”



DANI BLANCO (ARGIA)

San Joxepe erretiratuen elkarteak gonbidatu du Patxi Meabe Bergarara. Martitzenean egingo du hitzaldia.

Marijo Deogracias

**Ze mezu zabaldu nahi duzu martitzenean egingo duzun berbaldian?**

Hitz batzuk oso gastaturik daude jada, manipulatutik, gehiegi erabilita, eta bada ordua euren esanahia definitzeko. Jendea aspertuta dago hitz horiek entzuteaz. Izan ere, gauza berdinak esaten ez baditugu gai horietaz, konfiantzarik ez da izango hitz egiteko. Adibide bat jarriko dizut: Egun hauetan atera da Irlandan, eskubideen gainetik, behar-beharrezkoa dela konfiantza; hori barik ez dagoelako bake prozesurik. Hemen ordea, ez dago konfiantzarik eta konfiantza balore morala da.

Behar-beharrezko bi kontzeptu ondo zehaztu nahiko nituzke: bakegintza eta normalizazioa. Bi gauza dira. Diferenteak dira. Bereiztu egin behar dira, baina bat egin behar ditugu. Batek ez du bestea baldintzatzen eta ez dakit jendeak zenbateraino daukan garbi ikuspegi hori.

**Elizaren euskal ordezkaritzaren kontra askotan jo dute Espainiatik. Nola egiten zaio aurre zuek fede onez egiten dituzuen ekintzen kontrako jarrerei?**

Nik neuk ez diot horri kasurik egiten. Guk badakigu gure pentsamendua non oinarritzen den eta hortik abiatzen gara. Gai horretaz hitz egiten badakigu, baina ez gara politikoak, kolorea badaukagun arren; ez duela esaten duenak ez dio egia. Bakoitzak borondate onez bilatzen duen egiari zor zaion errespetua izan behar dugu. Politikan, ez dago egi bakarra, baina konfiantzaz eta borondate onez, aurrera egiten da.

**Espainiako gotzainen buru da Bilboko gotzaina. Horrek Euskal Herriko elizarekiko ikuspegia aldatzen lagunduko du?**

Gutxienez Bilboko gotzainak Euskal Herria ezagutzen du; Toledo, Valentzia edo beste nonbaiteko gotzainek ez dute ezagutu ere egiten. Jakin barik hitz egiten dute askok. Egunkarian irakurri dut orain dela gutxi “la unidad de España no es un dogma de fe, es un bien moral”; baina nork esan du ondasun morala denik? Eta, herri baten gehiengoaren borondatea errespetatzea ez da ondasun morala?

**Katalunian zabaldu den estatutua berritzeko prozesuak eta Espainiako gobernuaren erantzunak eragingo dute Euskal Herriko prozesuan?**

Kataluniarrek ez dute bakegintzaren arazoa; normalizazioarena daukate. Arriskatu nahi nuke esanaz, konponduko dela; agian ez kataluniarrek nahiko luketen bidetik, baina bai diruaren bidez bideratuko da.

Espainian ez da ulertzen abertzaletasun periferikoa. Espainia katoliko, monarkiko eta bateraezina den mezua XIX. mendea ezkero zabaldu dute eta eskoletan irakatsi den historia, Cadizko gorteetatik hona, espainiar hizkuntza eta erlijioaren hiru zutabeetan oinarrituta egon da. Hiru oinarri horretan sustatu da Espainiaren batasuna; baina egi erdiak dira (Espainian esaterako, 1812. urtera arte ez zen estatu nazioa sortu). Eta, hain justu kulturaren bidez, eta historiaren interpretazioaren bidez sartuta dagoenez, politikoek ere ez dute ulertzen kataluniarrek edo euskaldunok ez dugula kontzientzia hori.

**_Egunkaria_ren auzian auzipetutako lankideen epaiketara joan zinen, elkartasuna adierazteko. Zer adierazi nahi izan zenuen ekintza horrekin?**

Gure asmoa, batez ere, torturak salatu zituztenei babesa adieraztea zen. Gainera adierazpen askatasuna zapaldu egin zutela adierazi nahi izan genuen. Adierazpen askatasunik gabe, ez dago gizarte demokratikorik.

18/98 auziaren haritik ere joan nintzen Madrilera.

**Epaileek presoekiko ikuspegi diferenteak dituztela idatzi izan duzu inoiz eta birgizarteratzearen kontra doala hori.**

Bakegintzan 2-3 arazo daude eta horretaz jardun nahiko nuke hitzaldian. Batetik edukiak, hitzen eta planteamenduen edukiak: estatuarekiko hartu-emanen marko berria, autodeterminazioa… Bigarren, zelako gizarte pluralean bizi garen (denak ez gara Ataungoak). Hirugarren, denok ados egon behar gara erabakitzen duguna onartu eta aurrera eramateko. Eta, aurrera begira, demokratikoki erabaki behar dira gauzak, eta ez indarraren bidez. Hor sartuko litzateke, etorkizunera begiratzea eta ez barkamena eskatzea eta kondenak egiten aritzea aldioro, batzuek eskatzen duten legez.

**Baina hortxe sartzen dira baldintzak.**

Herri honetan bakegintzan aurrerapausuak eman nahi baditugu, denon artean adostu eta onartu behar dugu eta ez atzera begira egon. Aurrera begiratzeko baldintza bat jartzen dut: denok adostu dugu politikoki aurrera egitea, hortaz aurrera.

Eta, beste bi arazo oso delikatu daude eta bakegintza aurrera joateko, hauek ere mahai gainean jarri behar dira: presoak eta biktimak edo biktimak eta presoak. Aurretik esandakoarekin bat egiten dute eta orokorrean ikusita, gai hauek planteatu ezean, boluntarismo hutsaz ari gara.

Errazagoa da hitz egitea gero zehaztea baino, baina hauek dira osagaiak. Hori da nire ikuspegia.

**“Behar-beharrezko bi kontzeptu ondo zehaztu nahiko nituzke: bakegintza eta normalizazioa”**

**“Borondate onez bilatzen duen egiari zor zaion errespetua izan behar dugu”**

**“Espainia katoliko, monarkiko eta bateraezina delako mezua XIX.a ezkero zabaldu dute”**

**“Aurrera begira, demokratikoki erabaki behar dira gauzak, eta ez indarraren bidez”**

**PERRETXIKO ZALETASUNA BULTZATZEKO** | LUIS EZEIZA ESKORIATZAKO HERRI ESKOLAK ANTOLATU ZUEN PERRETXIKO ASTEBURUA



M.D.

Ikusmin handia sortu zuen Luis Ezeiza ikastetxeko eta Laudioko mikologia elkarteko lagunek osatutako erakusketak.

# Ehundik gora perretxiko mota erakutsi zituzten atzo Eskoriatzako plazan

*Luis Ezeiza ikastetxeko guraso elkarteak bigarrenez egin du perretxiko asteburua, Laudioko mikologia elkartearen laguntzaz*

Marijo Deogracias

Zapatuan herri ikastetxeko umeek batutako perretxikoak (115 mota) eta kanpotik ekarri ziren onddoak eta zesareak jarri zituzten erakusgai atzo Eskoriatzako plazan. Laudioko mikologia elkarteko Javi Mateok azaldu zigunez, "136 mota sailkatu genituen zapatu arratsaldean. Nahiko azkar egin genuen sailkapena, elkarteko Jose Mari Ibarbiaren –perretxikoetan oso aditua– laguntza ere izan genuelako. Gehienak jangarriak ziren, %10 pozointsuak eta bi edo hiru hilgarriak". Aurreko egunetan izandako eguraldia kontuan hartuta, "perretxikoetariko asko nahiko siku zeuden, baina erakusketa ederra osatzeko beste pieza topatu genituen", azaldu ziguten guraso elkartekoek.

Hala ere, udazkeneko perretxiko erakusketetan ohiko izaten den hiltzaile berdea (amanita phalloide) ez zuten topatu eta "nahiko arraroa da hori", azaldu zigun Javik.

**KURIOSO ESKU LUZEAK**

Plazan *u* forman jarri zituzten erakusmahaiak atzo goizetik eta, batez ere eguerdian, jende asko hurbildu zen hogei bat ikaslek batutakoa ikustera. Batzuk gainera, oroitzapen gisara-edo, etxera eraman zuten perretxikoetako bat: "pieza arraro samarra da lapurtu dutena, baina ez aditu batek jateko hartuko lukeena", azaldu ziguten Laudiokoek.

**HITZALDIA EGUBAKOITZEAN**

Egubakoitzean hasi zuten Eskoriatzako Luis Ezeizako guraso elkartekoek perretxiko asteburua. Satur Gonzalez mikologo laudioarra izan zen Luis Ezeiza ikastetxean hizketan, perretxikoen ugalketaz lehenengo eta jangarri eta bestelakoen bereizitasunez gero. Jende askorik ez zen gerturatu hitzaldira, baina berbaldia "benetan interesgarria" izan zela aitortu digute guraso elkarteko kideek.

**• BATU ETA JAN**



RAFA SALIDO

**MENDIRA BILA.** Zapatu goizean joan ziren hogei bat neskato-mutiko, gurasoekin eta perretxikotan adituekin, perretxikoak batzera. Helburua, aurreko urtean legez, ahalik eta perretxiko mota gehien jaso, arratsaldean sailkatu eta domekan herriko plazan erakustea. Irudikoak Hypholoma Fasciculare perretxikoak dira; toxikoak direla azaldu ziguten Luis Ezeiza ikastetxeko guraso elkarteko kideek. Domekan erakusketan horrela adierazi zuten.



M.D

**PERRETXIKO JANA.** Iaz legez, Laudioko mikologia elkarteko Pruden Aldaiturriaga aritu zen sukaldari lanetan elkarteko beste hainbat kiderekin. Lau pintxo bi eurotan: perretxiko enpanadilla, kroketa, albardatutako perretxikoa eta perretxiko patea. Arrakasta handia izan zuen pintxo janak eta bost perretxiko motarekin egindako arrautza nahaski mundialak zeuden. Mota bakoitzeko 170 bat pintxo egin zituzten; 14:00etarako agortu egin ziren guztiak.

**• PERRETXIKOZALE GAZTEEK ONDO BAINO HOBETO PASATU ZUTEN ASTEBURUAN**



**JOKIN ETA MAIALEN** | ESKORIATZA

"Iaz ere joan ginen perretxikotara, baina aurten jende gutxiago animatu da. Hala ere, perretxiko dezente bildu ditugu" azaldu zigun Maialenek. Jokin, gainera, Luis Ezeiza ikastetxean aste barruan perretxikoak ezagutzen aritu da.



**BITTOR, ANE, OSKAR ETA DANEL** | ESKORIATZA

Danel ere perretxikotara joan zen zapatuan eta gibelurdinak bildu zituela esan zigun. Bittorrek, aukeran, perretxikoak saltsan ditu gustuko. Anek ere "amatxo eta aitatxorekin joan izan naiz inoiz perretxikotara" aitortu zigun.



**ARGITXU** | ESKORIATZA

Iaz ere joan zen Luis Ezeizakoekin perretxikotara. Aurten "pozointsu gorri bi hartu ditugu erakusketarako".



**IKER, MARKEL, JON ETA JOKIN** | ESKORIATZA

Tarteka, pintxoekin banatzen zuten tragoxka zerbitzatzen aritu ziren lau lagunak. Jokinek, gainera, perretxikotara egindako irteeran parte hartu zuen zapatuan. Eurek ere jan zituzten pintxoak: "enpanadilla da gozoena".

## Albiste izango da

**ARRASATE** | EGUAZTENETAN, 12:00ETATIK 13:30ERA

### Etxe hutsak errentan hartzeko arreta zerbitzua udaletxean

Etxebizitza hutsa errentan hartu nahi dutenendako arreta zerbitzua jarri du Udalak. Eguaztenetan egongo da zabalik, 12:00etatik 13:30era udaletxean. 943 37 61 89 telefono zenbakira ere dei daiteke. Modu horretan, etxea errentan hartu gura duenak diru sarreren araberako errenta ordainduko du. Bestalde, honako baldintzak bete behar dira halako etxea errentan hartzeko: Etxebiden izena ematea, etxebizitza errentan hartu baino 2 urte lehenago jabetzan etxerik ez izatea, EAEko erroldan urtebetez izena emanda izatea eta diru sarrerak 3.000 eta 21.000 euro artekoak izatea.

**GASTEIZ** | BIZIKLETA MARTXA EGINGO DUTE, 11:00ETAN

### Talde politikoen txanda gaur, AHT-ren kontrako aldarrikapen gunean

Talde politikoen txanda da gaur AHT Gelditu! Elkarlanak Jaurlaritzaren aurrean jarri duen Aldarrikapen Gunean. Egubakoitzera arte egongo dira, gizarte erakunde, mugimendu eta herri kaltetuetako bizilagunek AHTren inposizioa gaitzesteko. Gaur, 11:00etan, AHTren alde dauden alderdi politikoen egoitzetara bizikleta martxa egingo dute. Bestalde, zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora joateko, autobusak jarriko dira eskualdetik. Tikeak salgai daude Eskoritzako eta Aretxabaletako Arranoetan eta Arrasateko Irati, Jaizale eta Biona tabernetan. Autobusaren ordutegia: Eskoriatzako geralekuan, 15:00; Aretxabaletako Azben, 15:20; Arrasateko Garibain, 15:30.

**ARRASATE** | URRIAREN 24AN EGINGO DUTE

### Pobreziaren kontrako eguna ospatuko da gaur mundu osoan

Gaur da pobreziarekin amaitzeko munduko eguna eta horren haritik, Arrasateko Pobrezia Zero Plataformak gaia lantzeko jardunaldia antolatu du. Hala ere, gaur egin beharrean, urriaren 24ra atzeratu dute jardunaldia.

Arrasateko udaletxetik kanpainako pankarta eskegiko dute eta alkate eta zinegotziek kanpainari adierazi dioten atxikimendua azalduko dute, hau da, Garapenerako kooperazioan Udalak egiten duenaren berri emango dute. Pobreziaren bukaera eskatzen duen manifestuaren irakurketaren ostean, eskegiko dute pankarta udaletxeko balkoitik.

Ekitaldia urriaren 24an, astelehena, egingo dute arratsaldeko 7etan Arrasateko udaletxe aurrean.

**ARRASATE** | MONTERRONEN 11:00ETATIK 13:00ETARA

### EHNA tramitatzeko mahaia jarriko dute zapatuan Arrasaten

Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) tramitatzeko kanpainak jarraitzen du eta asteburuan Debagoienean egiteko aukera egongo da. Urriaren 22an Arrasaten egongo da horretarako bidea. Horretarako behar-beharrezkoa izango da norberaren hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eramatea. Adin txikikoek, gainera, familia liburuaren fotokopia aurkeztu beharko dute EHNA tramitatu ahal izateko.

Arrasateko Monterron jauregian jarriko dute mahaia, goizez, 11:00etatik 13:00etara.

**ARRASATE** | URRIAREN 29TIK AZAROAREN 1ERA

### Bartzelona eta Realaren arteko partidurako bidaia antolatu dute

Arrasate txuri-urdin taldeak Bartzelona eta Realaren arteko partidua ikustera joateko autobusak antolatu ditu. Urriaren 29tik azaroaren 1era artekoa izango da bidaia eta 140 euro balio du (irteera egunean ordaindu beharko da). Prezio horretan sartzen dira: joan-etorriko autobusa, hiru gau lau izarretako hotelean Granollersen (gosaria barne), Bartzelonara joan-etorriak egunero eta bidaia asegurua. Partidurako sarrerei dagokienez, ez daude esandako prezioaren barruan.

Irteerak aurrera egiteko gutxienez 50 lagunek eman behar dute izena. Horretarako jo Monte tabernara urriaren 23a baino lehen.

## Hitzorduak



**EUSKARA IKASLEEI LAGUNTZEKO HIZTUNAK BEHAR DITU AED-K** |

### Zahar-Berri programan parte hartzeko deialdia egin berri dute

Arrasateko AED elkarteak euskal hiztunak behar ditu euskaldun berriei euskaraz egiten laguntzeko, hori da-eta Zahar-Berri planaren helburua.

Parte hartzeko bi modu dago: bat, Berba Laguna, astean behin euskaldun zahar eta berriak, giro onean, euskaraz berba egiteko taldean batzea; eta bestea, Berba Taldea, hiru asteburuan behin ekintzak egitea: irteerak, afariak, antzerki lanak... eta, aitzaki horrekin ere, euskara lantzea. Argazkian, taldeak egin zuen talo ikastaro bat.

Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 77 12 28 telefono zenbakira.

**ARRASATE** |

**• Osasun heziketarako ikastaroa egiteko aukera**
Osasun heziketarako ikastaro psiko-hezitzailea antolatu du Acabe-k, anorexiaren eta bulimiaren aurkako elkarteak. Egun bakarreko ikastaroa izango da, azaroaren 2an, eguaztena, Arrasateko kultura etxean. Izena emateko, deitu Arrasateko Udal Prebentzio Sailera (943 79 09 00) edo bidali mezu bat *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbidera.

**• Strip-tease terapeutiko ikastaroa egingo dute**
Strip-tease terapeutiko ikastaroa antolatu du Emakume Txokoak. Urriaren 26an eta azaroaren 2, 23 eta 30ean izango dira saioak. Izenematea zabalik dago Emakume Txokoan (943 79 41 39).

**• Ipuinen gaineko hitzaldia izango da bihar, martitzena**
*Ipuinaren ahalmena beldurraren aurrean* hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak bihar, martitzena, Santa Marina auzo liburutegian, 18:30ean. Udal Liburutegiak eta Galtzagorri elkarteak antolatu dute.

**BERGARA** |

**• Bakegintza Euskal Herrian, hitzaldi baten azalduta**
*Normalizazioa eta bakegintza Euskal Herrian* delako hitzaldia egingo du *Justicia y Paz* aldizkariko zuzendariak, Patxi Meabek, bihar, martitzena, Miguel Altuna ikastetxean, 19:30ean.

**• Buru gaixotasunez berba egingo du aditu batek**
Buru gaixotasunez eta birgaitzeaz berba egingo du Juan Moro psikiatrak eguenean, hilak 20, Miguel Altuna ikastetxean, 18:30ean. Agifes elkarteak antolatu du.

**• Zabor-postaren gaineko ikastaroa dago Bergaran**
*Zer egin zabor-postatik libratzeko?* delako ikastaroa antolatu du Miramon Enpresa Digitalak eguenean, hilak 20, Miguel Altuna ikastetxean, 18:00etan. Argibide gehiago duzue *www.enpresadigitala.net/ miramon/euskera/curso_descripción.jsp?id=1* webgunean.

**• 1964an jaiotakoek batera afalduko dute azaroan**
Torrekua erretegian egingo dute afaria azaroaren 19an. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 13ra bitartean herriko plazako kioskoan. 10 euro aurreratu behar da.

**ELGETA** |

**• Ludotekan izena emateko aukera dago aste osoan**
Izenemate epea zabalik dago hilaren 21 arte, datorren egubakoitza, udaletxean. Ludoteka azaroaren 2tik aurrera egongo da zabalik, astegunetan, 16:00-19:00 ordutegian.

**OÑATI** |

**• *Ikastolara gurasoen eskutik* delako hitzaldia, etzi**
*Ikastolara gurasoen eskutik* izeneko hitzaldia izango dute Haur Hezkuntzako gurasoek etzi, eguaztena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Amaia Ezeiza EHUko Psikologia irakasleak egingo du berbaldia.

**• Danborradako jantziak bueltatzeko eskatzen dute**
San Migeletako danborradako antolatzaileek dei egiten dute utzitako jantziak bueltatzeko. Jantziok kultura etxera eraman behar dira lehenbailehen, 16:30etik 21:00etara bitartean.

**• Ohi bezala, Lodosara irteera egingo dute erretiratuek**
Ohiturari jarraituz, pikillo piperraren kanpainaren sasoia dela aprobetxatuta, Lodosara irteera egingo dute Pake Leku erretiratuen egoitzakoek hilaren 20an, eguena. 08:00etan irtengo dira autobus geltokitik. Lehenengo, Kalagorri bisitatuko dute, Azagran bazkalduko dute, eta Lodosara joango dira azkenik, hango kontserba enpresa ikustera. Izena emateko aukera dago gaur, astelehena, edo etzi, eguaztena, arratsaldez.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 01**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Txikitxu Arrostaitzi barkamena:**
ASTELEHENEKO GOIENKARIAk barkamena eskatu nahi dio, publikoki, Arrasateko Txikitxu Arrostaitz dantza taldeari, bi zenbaki atzerago idatzitako artikuluan egindako hutsagatik. Hango artikuluan ez zen esan Barkoxetik etorritako ordezkaritzari, Txikitxu Arrostaitz dantza taldeak egin ziola ondo etorria Arrasaten, urriaren lehenengoan, eta eurak izan zirela, urriaren 2an, Aretxabaletan egin zen Kilometroak jaian dantza egin zutenak. Hortaz, orduan idatzitakoa argitzera dator ohar hau eta, bide batez, gaizki esanak zuzentzera.

• **A-8 autobideko arduradunen aurpegi handia**
Horrela dio gurera iritsi den txistu-gutun batek: "A-8 autobideko arduradunen aurpegi handia salatu nahiko nuke. Autobideetan egiten ari diren lanek izugarrizko kalteak eragiten dituzte egunero errepide horretan. Hala ere, ordaindu berdin-berdin egin behar izaten dugu erabiltzaileok. Nik dakidala, errepide baten ibiltzeagatik ordaintzen denean, autobidean kasu, abiadura eta segurtasunaren tasa ordaintzen da. Kontua da, badirela hilabete batzuk –eta beste asko izango dira– ez abiadurarik ezta segurtasunik ere ez dagoela A-8 autobidean. Ermutik eta Bergarara doan autobide zatia hartu arte, errepide bikoitza barik bide bakarra dago eta oso estua gainera! Konponketak egiten ari diren langileek jarritako konoak saihesten ere nahikoa lan izaten dugu gidariok. Hortaz, eta konponketak amaitu arte, zergatik ez digute, gehienez, erdia kobratzen? Kontuan izanik errepidearen egoera txarra, ez da bidezkoa erabiltzaileoi egiten diguten lapurreta. Eta, gainera, auto ilaran geldirik gaudela gastatzen dugun erregaia gehituz gero, A-8 erabiltzeagatik kobratu egin beharko genukeela uste dut".

## Sarean harrapatuta

# Zer egin etorkinen arazoa konpontzeko?

**Azken asteotan han eta hemen entzun da Ceuta eta Melillara pasa nahi zuten etorkinen egoera. Saiakera horretan hil egin dira batzuk eta beste asko bueltan bidali dituzte beraien jaioterrira. Etorkinak bidaltzeko modua askok kritikatu dute. Izan ere, basamortuan bakarrik utzi dituzte asko. Bitartean, hirugarren hesi bat jarri du Espainiako gobernuak. Gai horren inguruko eztabaida izan da *Goiena.net*-en.**

### GIZA BALOREEN IZENEAN KONPONDU ARAZOA

Nire ustez lehenengo munduak, giza balore eta justiziaren izenean, lehenengo egiteko lan moduan hartu beharko luke arazo honi konponbidea ematea. Eta horretarako neurri zorrotzak martxan jarri behar ditugu. Hori egiten ez den bitartean milioika etorkinen bizitzako ametsa Europan sartzea izango da, heriotzarekin ordaindu behar baldin badute ere.

Gorri / www.goiena.net

### ZERGATIK ETORTZEN DIREN GALDETU

Espainiako eta Marokoko gobernuek irtenbide bat bilatu beharko lukete. Pertsona askoren bizia eta etorkizuna jokoan dago eta animaliak bezala tratatzen dituzte. Irtenbidea ez da Espainiara iristen diren etorkinak berriro Marokora bidaltzea. Horrenbeste etorkin zergatik etortzen diren galdetu beharko lukete lehen mundu honetako gobernuek. Eta ondoren arazoa konpon dezatela.

Maier / www.goiena.net

### HESI ALTUAGOA JARRITA ERE SAIATUKO DIRA

Ez dut uste arazoa etorkinena denik, gurea da arazoa. Gero esango dugu ez garela arrazistak, baina gure ondasunak ikusten ditugunean arriskuan kanpoko guztiak botatzen ditugu gure ondotik.

Baina, pobreak beharrean aberatsak izango balira, eskuak zabalik hartuko genituzke. Hipokresia da hori. Alferrik da Maroko eta Espainiaren artean horma altua edo hesi bat jartzea, beste bideren bat topatuko dute beste aldera pasatzeko, jaio zirenetik horretan dihardute eta.

Aio / www.goiena.net

### GU GARA MISERIAREN ERANTZULEAK

Etorkinen arazoari buruz hitz egiten dugunean arazoa ez dago Melillan edo Ceutan, arazoa munduko Iparra eta Hegoaren artean dago; hor dago benetako arazoa eta hori da konpondu beharrekoa eta ez Melillako hesiaren altuera.

Guztiz normala da Afrikan miseria gorrian daudenak Europara pasatu nahi izatea. Miseria gorrian daude gu hain ongi bizitzearen ordaina beraien bizitza osoan ordaindu behar dutelako. Gu gara beraien miseriaren erantzule handienak, hori onartzen hasi behar dugu lehenengo.

Gorri / www.goiena.net

### ARAZOEI AURRE EGITEN EZ DAKITEN AGINTARIAK

Etorkinak heltzen direnean bakarrik kezkatzen da estatua. Eta zer egin du ordura arte? Ezer ere ez. Haiek ere bizimodu hobeago baten bila joateko utziko dute euren herria eta seguru ez luketela euren herria utziko bizi baldintza hobeak izan balituzte han. AEBak, G-8, Europa, Lehen Mundua... arazoei aurre egiten ez dakiten boteredunak dira horiek guztiak.

Ines / www.goiena.net

### GARATZEN LAGUNDU BEHAR DIEGU

Etorkinek euren herrialdeetatik ihes egiten dute hemen bizimodu hobea izango dutelakoan. Hala ere, errealitatea oso bestelakoa da haientzat. Benetako errealitate gordina zein den jakiten duten asko damutu ere egiten dira etortzeaz. Soluzioa Hirugarren Munduko lurraldeak garatzen laguntzea. Horrek esan nahi du Lehen Munduko herrialdeek beste egiteko askoren artean Hirugarren Munduko herrialdeetako esplotazioa alde batera utzi beharko dutela.

Lore / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

# Ze neurri hartu beharko lirateke gazteek jaien aitzakiarekin egiten dituzten gehiegikerien aurrean

?



**ARANTZA MONGELOS** | HUHEZIN IRAKASALE

Lehenengo urratsa etxean hasten da. Gurasook gure seme-alabekin egon behar dugu egoerak aztertzen, euretaz arduratzen, hitz egiten, askotan ezetza ematen. Gure alboan, batera, gizarteko erakundeak bidaide eduki behar ditugu, denok batera neurriak ipintzen joateko.



**MIREN ARGI ZEZIAGA** | ELGETAKO GURASO ELK.

Nerabezaroa eta gehiegikeriak elkarri lotuta daude neurri batean. Hala eta guztiz ere, helduak transmititzeko gai izaten ez garen baloreak ikusi nahi izaten ditugu gazteengan. Esaten denaren eta egiten denaren arteko koherentzia beharrezkoa dela uste dut.



**MAIDER ETXANIZ** | ARETXABALETAKO GAZTE TEK.

Formula magikorik ez dago, baina prebentzioa lantzeko 2 neurri proposatuko nituzke: informazioa eta parte-hartzea, aisialdi alternatiboa. Aretxabaletako Gaztelekuak horixe du helburu: gaztetxoentzako alternatiba izatea eta eurak protagonista izatea, beti ere hezitzaileen laguntzaz.



**ARANTZA ETXEBERRIA** | HEZKUNTZA PROIEKTU ARD.

Gazteekin gertatzen ari dena,ondo pasatzea eta gehiegizko kontsumoaren artean eginiko loturaren ondorioa da. Helduok ematen dugun eredua aztertu beharko genuke. Zein ekintza eta eredu hezitzaile garatu behar ditugun pentsatu beharko genuke beraien heziketaz arduratzen garenok.

## Egunkarietako harribitxiak

**GOSEAREN IBILBIDEA, NIGERREN**

Seme-alabetako zein hiltzen laga behar duten erabaki behar duten amak; ahurrean kabitzen diren umeak. Horixe da Nigerreko irudia, atzo, *El Diario Vascoren* gehigarriak zekarren erreportajearen arabera. Munduko herrialderik pobreena da eta hiru milioi biztanlek sekulako gosea pasatzen dute.

**'XLSemanal'**
2005-10-16



**MCC-REN URREZKO EZTEIAK**

Eguenean, hilaren 20an, hasiko da MCC urrezko ezteiak ospatzen. 1955. urteko urriaren 20an eskuratu zuten baimena Ulgor kooperatiba izango zena sortzeko. Hori horrela, eguenean, ekitaldi handia egingo dute. Han izango dira Ibarretxe lehendakaria eta euskal agintari ugari. Amaia Antzokian egingo dute, 19:00etan, eta besteak beste, On Jose Maria Arizmendiarrieta zena omenduko dute. Baita haren gainean Fernando Molina historialariak idatzi duen liburua aurkeztu ere. Ekitaldi gehiago ere antolatu dituzte: azaroaren 17an Kooperatibismoaren Munduko Eguna ospatuko dute Kursaalen; martxoaren 4an, fundatzaile guztiak omenduko dituzte eta maiatzaren 5ean, kontzertua egingo dute.

**'El Diario Vasco'**
2005-10-16



ALTO DEBA

Las bodas de oro de MCC empezarán el jueves con el homenaje a Don José Mª

- El 20 de octubre de 1955 se adquirió la licencia industrial que dio pie a la fundación de la cooperativa Ulgor
- Se presentará una trilogía biográfica sobre D. José María Arizmendiarrieta

Ulgor nació en un viejo taller de Vitoria con 400.000 ptas

## Tira, tira...




**Tasio** 'Gara' | 2005-X-16

## Zorroztailea



# Guai ez

> *Kontu korrontea zabaldu zuten antolatzaileek (…) beste eremu batean. Europa osoa kontuan izanda (…) seguru asko errenta zein kontsumo mailarik altuenetakoak erakusten dituen Debagoiena eremu gipuzkoar baina bizkaiera mintzairadunean. Halaber, monobolumen zein 4x4 gehien erakusten dituen ikastolagune tradizionala (…) Nora zuzendu diru-biribilketa... Mendebaldeko euskalkia monobolumenean dabilen ekialde hurbilera ez, noski, oraindik oinez dabilen ekialde urrunera baizik.*
>
> **'Berria'** | 2005-10-16

Elena Laka

Gaur egungo merkatu-munduan, gauzak ez dira diren bezalakoak, saltzen diren bezalakoak baizik. Saltzen duguna (edo ez duguna) gara. Eta aitor dezagun: azokan postua ipintzerakoan Debagoienak ez du asmatu. Ez gara ez gipuzkoar ez bizkaitar moduan azaltzen. Aberatsegiak ez gara, pobreegiak ere ez, ez gara kexatzen. Donostiatik eta Bilbotik urrun eta garesti gaude, horiei bizkar bizi gara, beraz. Maltzagatik bailararako sarrera aiñubia da, ez da erakargarria. Eta onar dezagun: EITBko promoko andaluzaren moduan, "zozo" samarrak gara. Frigorifiko asko, farandula gutxi.

Iaz Euskal Herriko Hollywooden izan ziren Kilometroak, Zarautzen. Jakina, Zarautzen dena da "guai". Eguraldiak ere lagundu zuen egun horretan, inork ez zion kontuan hartu Zarautzi bere aberastasuna. Luxuzko automobilak, ehun milioiko etxeak, markako dendak… ezezagunak ei dira Zarautzen. Ah, baina Zarautz polita da, euskalki dotorean mintzatzen da, seguru asko gaur egun euskal idazle per capita gehien dauzkan herria da, eta herrian langileek ez dute bost errelebotan lan egiten. Zarautzen "guai" da malekoitik paseatzea. Ostera goiko trenbidetik ibiltzeak "glamour" gutxi dauka. Eta berdin hurrengo urteko Kilometroak-en herrian, Oiartzunen. Han txaletik ez, 4x4ko autorik ez.

Nafarroa, buruz oker ez banabil, Iberiar Penintsula guztian errenta per capita altuena duen lurraldea da. Irunberrin duela bi urte gertatutakoa penagarria izan zen, elkartasun deiak beharrezkoak izan ziren.

Zein da orduan aldea? Euskal Herrian badaukagu aberastasuna. Baita gauza askotarako baliabide premia ere. Itxuraz, baina, horrek bereganatuko ditu bere burua ondoen saltzen dakienak. Eta ez da hori, orain, Debagoienaren kasua.

**"Iaz Euskal Herriko Hollywooden izan ziren Kilometroak, Zarautzen. Jakina, Zarautzen dena da *guai*"**

**"Irunberrin duela bi urte gertatutakoa penagarria izan zen, elkartasun deiak beharrezkoak izan ziren"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

**INTERPELAZIO LANA**

Arrazoi asko daude Kaiera bezalako ekimenaren ahalmenaz jabetzeko. Baina esfortzu hori adierazpen hutsetan ez geratzeko, beharrezkoa da bere interpelazio izaera ez ahaztea. Hain zuten, halako sumarioak bultzatzen dituen dinamika kriminalizatzailea geldiarazteko interpelazioak, eta berrezar daitezen euskal gizartean eskubide eta askatasunak.

**Editoriala**
2005-10-15

### 'El Mundo'

**FALTA ZENA**

Generalitateko presidente denetik, Maragallek familia jatorriaren mesianismoaz abusatu du, baina anaia *conceller* izendatzea gehiegi da Katalunian Historia egiteko gai dela uste duenarendako ere. (...) PSOEren barruan egon diren beste *anaia* famatu batzuen oroitzapena nahikoa izan beharko litzateke nepotismo hori ez erabiltzeko.

**Editoriala**
2005-10-15

### 'Deia'

**ASMO ONAK**

AEBen hegoaldean hasi eta Tierra de Fuegorainoko lurraldeari eragiten dieten gaitz guztiak hain dira ugariak, ezen borondate eta adierazpen onak baino zerbait gehiago behar den konpontzeko. Gauzak nola dauden ikusteko, nahikoa da gogoratzea Salamancako gairik nabarmenena izan dela AEBn haserrea, Cubako blokeoaren zentsuragatik.

**Editoriala**
2005-10-15

### 'El País'

**ZORIGAITZAK ETA POLITIKA**

Pakistango gobernuak Cachemiran izandako erreakzioa ez da egokia izan. Potentzia nuklearra dira, eta agintzen duten generalek diru asko gastatzen dute armetan. Baina ez dira gai izan euren erkideak fundamentuz laguntzera joateko. Cachemiren zorigaitza izan da naturaren erasoari politikarena gehitu izana.

**Editoriala**
2005-10-15

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Marijo Deogracias, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Larraitz Zeberio.

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Mugarri Alkesak mendean hartu du sailkapeneko liderra, E. Alava taldea | 15
• Xabi Lekue lehen euskalduna izan da Hawaiiko Iron Man proban | 17



**Miguel Navarro. Arrasate Hiria Xake txapelketako saria Iruñeara joan da aurten** | 19

**PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAK**

UDA
**1-0**
REAL UNION

**UDA** | Gaizka Eriz, Raul Sanchez, Jon Torre, Unai Armendariz, Jon Unamuno, Igor Arenaza, Iker Orueta (Endika Cocho, 73. min.), Haritz Igartua, Igor Arriaga (Hegoi Arrieta, 69. min), Erik Garcia (Imanol Rodriguez, 84. min) eta Iban Espinosa.

**Real Union** | Xabier Iruretagoiena, Asier Arregi (Angel Santiago, 81. min.), Jon Zugarramurdi, Ivan Fernandez, Andoni Irazoki, Asier Aizpurua, Joxean Del Rey (Marco Perez, 69. min.), Andoni Idarramendi, Egoitz Arrondo (Aitor Perez, 65. min.), Joritz Aizpiroz (Francisco Gomez, 65. min.) eta Ricardo Moreno.

**Golak** | 1-0. Igor Arriaga (penaltia 67. minutuan).

**Epailea** | Igor Martinez. Jendea haserre hartutako zenbait erabakirekin.

**Bestelakoak** | Ikusle asko Ibarran. Talde irundarrak jarraitzaile asko ekarri zituen Aretxabaletara.

### Bikain

**Haritz Igartua**
Ondo aritu zen zelai erdian eta jokaldi arriskutsu bat baino gehiagotan ikusi genuen lehen lerroan. Ez zuen golik sartu, baina gogoz saiatu zen.

### Kaskar

**Irungo atezaina**
Ondo defendatu zuen bere atea Xabier Iruretagoienak, baina handikeriaz behin baino gehiagotan. Bizpahiru keinu itsusi izan zituen norgehiagokan etxeko jokalariekin.

### Esandakoak

"Taldeak maila ona eman du gaur. Joko gogorra egiten du Real Unionek eta ondo egin diogu aurre. Pozik nago".

**FELIX RECIO** |
ENTRENATZAILEA

"Zortea lagun izan dugu azkenean. Ondo jokatzen ari gara, baina emaitzak falta zaizkigu. Azkenean etorri da".

**HEGOI ARRIETA** |
UDAKO JOKALARIA



AITOR LIZARRALDE

Erik Garciak partidu ona egin zuen Real Unionen aurka. Dena eman zuen eta aldatu zutenean ikusleek txalo zaparrada egin zioten.

**FUTBOLA** | GORENGOEN MAILAKO TALDE INDARTSUA MENDEAN HARTU DU UDAK

# Real Union gogor etorri zen baina UDAk aurre egin zion

*Emaitza honek animoak altxatu ditu UDAren aldagelan, aspaldian garaipenik lortu ezinik zebilen eta Aretxabaletako taldea*

Larraitz Zeberio

Garaipen garrantzitsua lortu du atzo, domeka, UDAk. Felix Recioren mutilek etxean jokatu zuten eta mailako areriorik gogorrenaren aurka gainera.

Real Union talde irundarrak mailaz igotzeko moduko taldea osatu du aurten eta ez zuen Aretxabaletan galtzeko inongo asmorik. Etxeko taldea, ordea, forma oso onean irten zen zelaira eta UDAkoak izan ziren gol aukera gehiago sortu zituztenak.

**AUKERA GUTXI**

Ikusteko norgehiagoka kaxkarra izan zen atzokoa. Real Unionek ohikoa duen joko gogorra ekarri zuen, oso fisikoa, baina gol aukera gutxi sortu zituen.

Aretxabaletako mutilak hobeto ibili ziren aukerak sortzeko ahaleginean. Gola edozein momentuan irits zitekeen.

Iritsi zen, baina penalti bidez 67. minutuan. Real Union taldeko jokalari batek sarrera oso gogorra egin zuen area barruan eta epaileak txartel gorria eta penaltia adierazi zituen orduan. Igor Arriagak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura eta ez zuen huts egin. Gol bateko aldearekin pozik ziren UDAko jokalariak, baina ez lasai egoteko moduan.

**Real Unionek 10 jokalarirekin jokatu zituen azken 20 minutuak**

**Gol aukera gutxiko neurketa izan zen. UDAren golak bizigarri pixka bat eman zion partidari**

**23 MINUTU SUFRITZEN**

Irungo taldeak jokalari bat gutxiagorekin bukatu zuen partidua, baina gol aukerarik ez galtzeko lau aldaketa egin zituen.

Azkartu egin zuen joko erritmoa eta ondo eutsi zioten UDAko mutilek. "Guk beste estilo bat dugu", adierazi zigun Felix Recio entrenatzaileak. "Irungo taldeak futbol gogorra egiten du, asko borrokatzen duen taldea da. Guk baloia gehiago ukitzen dugu. Jokoa jarraitu diegu eta ondo atera zaigu".

UDAko mutilak pozik erretiratu ziren aldagelara norgehiagoka amaitu ondoren. "Azken jardunaldietan zorte txarra izan dugu. Aukerak sortu bai, baina golik ez. Gaur, gutxienez, zortea lagun izan dugu eta poztekoa da", zioen Hegoi jokalariak.

PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAK




AITOR LIZARRALDE

Mondrako jokalariak Iker Lopezen gola ospatzen, taldearen bigarrena.

# Ezinbestekoa zeukan garaipena lortu du Mondrak

**MONDRA**
**2-0**
**ORIOKO**

**Mondra** | Oier, Arkaitz (Ander Bereziartua, 77. min.), Illart, Alarcia, Laspiur, Ruben (Kepa Mercader, 80. min.), Muxi (Aritz Bereziartua, 80. min.), Gotzon Urzelai, Julen Heriz (Ekain Garin 55. min.), Iker Lopez (Julen Garmendia, 72. min.) eta Josu Zubikarai.

**Orioko** | Eneko, Heras (Esoain, 73. min.), Ibon Arruti, Ibon Arantzabal, Telleria (Ibarbia, 73. min.), Bellido, Arruti, Jon Argote, Iñigo Argote, Olaizola eta Torre (Fernandez, 83. min.).

**Golak:** 1-0, Josuk (59. min.). 2-0, Iker Lopezek (65. min.).

**Epailea**: Blanco jauna.

Larraitz Zeberio

Sailkapenaren goiko postuetan mantentzeko ezinbestekoa zuen garaipena Mondrak. Bi norgehiagoka jarraian galduta ezin hobeto etorri zaio Igor Gordobilek zuzentzen duen taldeari Oriokoren aurkako garaipena.

Bigarren zatian egin zituen Mondrak bi golak. Lehen 45 minutuak nahiko aspergarriak izan ziren. Baloiak Orioko taldearen area inguruan egin zituen minutu gehienak. Geldirik ere behar baino gehiago egin zituen, oriotarren defentsak kanpora bidaltzen baitzuen behin eta berriz. Etxekoek hiru aukera garbi sortu zitutzten, baina ezin izan zuten Oriokoren atea zulatu.

**MEREZITAKO GOLAK**

Bigarren zatian ezker hegaletik egin zuen lehen gola Josuk. Aurretik beste bi aukera garbi izan zituzten Lopezek eta Muxik.

Mondrak, orduan, erritmoa bizkortu eta jokoa hobetu zuen. Golak talde osoa indarberritu zuen. Laster iritsi zen etxeko taldearen bigarrena. Sei minutu beranduago Iker Lopezek area kanpotik jaurti zuen baloia. Orioko atezaina oso aurreratua zegoen eta buru gainetik pasatu zitzaion. Nahiz eta atzetik joan, ez zen gelditzera garaiz heldu.

Orioko ezinean ibili zen, Mondraren atera hurbildu ezinik. Mondra aukerak sortzen jarraitu zuen. Polita izan zen Gotzonek ezker hankarekin egindako jaurtiketa.

# Aloñak joko ona eginez irabazi zion Beriori; 0-2

**BERIO**
**0-2**
**ALOÑA MENDI**

Arantzazu Ezkibel

Aloñak hiru puntu lortu zituen zapatu arratsaldean Donostian. Partidua benetan polita izan zen ikusteko. Bi taldeek gogoz lan egin zuten arren, hiru puntuak Oñatira etorri ziren. 44. minutuan epaileak Berioko jokalari bat kaleratu zuen. Bigarren zatian gauzak asko okertu ziren etxeko taldearentzat. 6. minutuan epaileak atezaina kaleratu zuen baloia eskuarekin ukitzeagatik area kanpoan.

Nagusitasun hau aprobetxatuz, Aloñak partiduko bi golak sartu zituen; lehenengoa Aramendik sartu zuen eta bigarrena Arregi II.ak. Partidua erabakita geratu zen. Aloñak aste borobila egin du; bi partidu jokatu ditu eta biak irabazi ditu.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| UDA-Real Union | 1-0 |
| Zestoa-Touring | 2-2 |
| Allerru-Pasaia | 0-0 |
| Mondra-Orioko | 2-0 |
| Berio-Aloña Mendi | 0-2 |
| Irun 1902-Idiazabal | 2-2 |
| Anaitasuna-Beti Gazte | 2-2 |
| Hondarribia-Mutriku | 0-1 |
| Trintxerpe-Ordizia | 0-1 |
| Hernani-Zarautz | 1-1 |

**HURRENGOAK**

Aretxabaleta-Zestoa
Touring-Allerru
Pasaia-Mondra
Orioko-Berio
Aloña Mendi-Irun 1902
Idiazabal-Anaitasuna
Beti Gazte-Hondarribia
Mutriku-Trintxerpe
Ordizia-Hernani
Real Union-Zarautz

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Real Union** | **19** | 8 | 6 | 1 | 1 | 18 | 7 |
| 2. **Ordizia** | **19** | 8 | 6 | 1 | 1 | 13 | 4 |
| 3. **Pasaia** | **16** | 8 | 4 | 0 | 4 | 14 | 7 |
| 4. **Aloña Mendi** | **16** | 8 | 5 | 2 | 1 | 14 | 9 |
| 5. **Mondra** | **15** | 8 | 5 | 3 | 0 | 14 | 8 |
| 6. **Mutriku** | **15** | 8 | 5 | 3 | 0 | 12 | 10 |
| 7. **Zarautz** | **14** | 8 | 4 | 2 | 2 | 17 | 7 |
| 8. **Aretxabaleta** | **14** | 8 | 4 | 2 | 2 | 14 | 10 |
| 9. **Idiazabal** | **11** | 8 | 2 | 1 | 5 | 11 | 9 |
| 10. **Touring** | **11** | 8 | 3 | 3 | 2 | 17 | 16 |
| 11. **Trintxerpe** | **11** | 8 | 3 | 3 | 2 | 8 | 10 |
| 12. **Berio** | **10** | 8 | 2 | 2 | 4 | 10 | 8 |
| 13. **Zestoa** | **9** | 8 | 2 | 3 | 3 | 9 | 9 |
| 14. **Hondarribia** | **9** | 8 | 2 | 3 | 3 | 8 | 11 |
| 15. **Beti Gazte** | **7** | 8 | 1 | 3 | 4 | 7 | 10 |
| 16. **Irun 1902** | **6** | 8 | 1 | 4 | 3 | 8 | 16 |
| 17. **Anaitasuna** | **5** | 8 | 1 | 5 | 2 | 6 | 12 |
| 18. **Hernani** | **4** | 8 | 1 | 5 | 2 | 6 | 17 |
| 19. **Allerru** | **2** | 8 | 1 | 5 | 2 | 2 | 13 |
| 20. **Orioko** | **2** | 8 | 0 | 6 | 2 | 8 | 23 |

## 1. erregionala

# Bergarak ezin izan zuen etxean Mundarro gainditu

**BERGARA**
**0-0**
**MUNDARRO**

Arantzazu Ezkibel

Bergarak husnako berdinketarekin konformatu behar izan zuen zapatu arratsaldean Agorrosinen jokatutako partiduan.

Partidua txarra izan zen. Bi taldeak nahiko gaizki kokatuta zelairatu ziren. Hala ere, Astigarragakoek joko hobea egin zuten. Lehenengo zatian etxeko taldeak baloi asko galdu zituen zelai erdian. Mundarro zelai erdiaren jabe egin zen eta baloia ongi mugitu zuen alde batetik bestera. 37. minutuan, Mundarroren aldeko falta adierazi zuen epaileak area ertzean. Astigarragako jokalariek baloia sareetan sartzea lortu zuten, baina epaileak ez zuen gola ontzat eman.

**BIGARREN ZATIAN HOBETO**

Bigarren zatian Bergara hobeto kokatuta zelairatu zen. Bi taldeak zelai erdia bereganatu guran ibili ziren. 20. minutuan, Mundarrok aukera polita izan zuen markagailuan aurretik jartzeko baina baloiak zutoina jo zuen.

Bergarak gola bilatu nahi zuen zaleei garaipena eskaintzeko. Hala ere, saiatu arren, etxekoak ez ziren gai izan gola egiteko. Bi aukera paregabe izan zituen etxeko taldeak lehenengo gola egiteko. Baina bai batean eta bai bestean aurrelariak ez ziren fin aritu. Azkenean partidua nahastu egin zen. Falta zatarrak ikusi ziren eta ikusleak epailearekin haserretu ziren.



ARANTZAZU EZKIBEL

Etxeko taldeak erdialdean baloi asko galdu zituen.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko urriaren 17a

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Ford Mugarrik hobeto mugitu zuen baloia

*Usurbilgo taldeak joko gogorra ekarri zuen Arrasatera baina atzetik ibili zen*



AITOR LIZARRALDE

Arrasateko jokalariek ondo zulatu zuten Usurbilgoen defentsa.

FORD MUGARRI ALKESA
**29-22**
USURBIL

**Ford Mugarri Alkesa** | Egaña, Ekaitz, Esquibel, E. Garcia (3), J. Urrutia, A. Garcia (1), Oier, Murillo, Jon Lonbide (11), Nestor Calleja (7), Alcelai, Kepa Isasmendi (3), Iker Otegi (3) eta Manu Carrasco (1).

**Usurbil** | Castro (2), Bengoetxea (4), Iker (5), Egues, Sarasola (2), Hernandez (3), Zarrañaga (4), Aranburu (1), Urkia, Jon, Iñaki (1) eta Sergio.

**Golak:** 2-0, 5-2, 7-4, 8-7, 11-6, 16-10, 17-14, 21-16, 22-17, 23-18, 24-20, 29-22.

Larraitz Zeberio

Gustura egoteko moduko neurketa egin zuen atzo, domeka, Andoni Arandok zuzentzen duen taldeak. Norgehiagokaren hasieratik jarri ziren aurretik markagailuan. Etxekoak kantxan ondo mugitu ziren. Erasoan argi eta arin ibili ziren, Usurbilgo defentsaren zuloak non, Arrasateko mutilak han. Lehen minutuetan eskuin hegaletik egin zituzten sarrera gehienak eta Jon Lonbide bereziki nabarmendu zen jokaldi hauetan.

Epaileak kanporatze ugari adierazi zituen. Usurbilgo jokalariek joko gogorra ekarri zuten Arrasatera eta behin baino gehiagotan aritu ziren jokalari bat gutxiagorekin.

Kanpoko taldeak ez zuen amore eman eta berdintzera iritsi zen lehen zatia amaitu baino lehen. Atsedenerako, ordea, 16-10 aurretik zen berriro ere Ford Mugarri Arrasate.

**JOKALDI POLITAK**

Bigarren zatian jokaldi politak egin zituen etxeko taldeak. Taldekako joko ona erakutsi zuten. Azkar mugitu ziren kontraerasoan eta Igor Egaña atezainak lan txukuna egin zuen.

Usurbil ere hobeto aritu zen eta markagailuko aldea 3 puntutara jaistea lortu zuen. Usurbil etxekoak estutzen ari zen. Andoni Arandok, baina, etenaldia eskatu zuen eta taldea birmoldatzea lortu zuen. Etxekoak hobeto aritu ziren amaierara arte.

• SENIORRAK

## Bergarak ligako lehen garaipena eskuratu zuen Andoainen

LEITZARAN
**18-19**
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergarak ligako lehen partidua irabazi zuen Andoainen Leitzaranen aurka, 18-19.

Domeka goizean jokatutako partidua oso berdindua izan zen. Bergara beti aurretik joan zen markagailuan gol pare bateko aldearekin. Talde mahoneroa defentsan oso ondo aritu zen. Andoaingo taldearen erasoa geratzen jakin zuten eta horrek azkenean garaipena eman zien bergararrei. Defentsako lana izan zen partiduaren gakoa.

**KANPOKO JAURTIKETETAN HUTS ASKO EGIN ZITUZTEN**

Aurrealdean ondo aritu ziren bergararrak. Joko ona eta azkarra egin zuten. Baloia ongi mugitu zuten arearen ertzean. Hala ere, kanpoko tiroetan huts batzuk egin zituzten. Gol aukera asko galdu zituzten bergararrek kanpotik botatako jaurtiketa hauetan.

Bergarak indar handiarekin jokatu zuen partidua eta garaipena ondo merezia izan zuen.

Talde mahoneroan Mikel Larrañagak aipatzeko moduko partidua jokatu zuen. Oso ondo aritu zen Bergarako gaztea, bai defentsan eta bai aurrealdean, eta bere taldeak sartutako 19 goletatik 5 bereak izan ziren.

• BIGARREN TERRITORIALA



AITOR LIZARRALDE

**26-15 IRABAZI ZUEN ARRASATEKO TALDEAK**

Donostiako Gros Cocinas taldea mendean hartu zuen atzo, domeka, Arrasateko taldeak. Musakolan jokatu zuten norgehiagoka bi taldeek eta lehen zatian lortu zuen etxeko taldeak partidu amaierako emaitzak erakusten duen aldea.

Ondo aritu ziren defentsan eta txukun oztopatu zituzten donostiarren eraso saiakerak. Kontraerasoan ere itxura ona eman zuten, baloi asko lapurtuz. Erasoan, azkenik, donostiarren defentsako zuloak ondo aprobetxatzen ikusi genituen. Merezitako garaipena izan zen.

• GAZTE NESKAK



AITOR LIZARRALDE

**DERBYA OÑATIARREK IRABAZI ZUTEN**

Verkol Aloñak 37-6 irabazi zion Arrasateko taldeari domeka goizean Zubikoa kiroldegian. Partidua hasieratik jarri zen etxekoen alde. Oñatiarrek joko polita egin zuten eta arrasatearrek berriz, talde oso makala dutela erakutsi zuten. Aloñak ez zuen inongo arazorik izan defentsan. Beste partiduekin alderatuz, defentsako lana asko hobetu du Aloñak. Aurrealdean joko bizia egin zuten. Arrasateko taldeak defentsan huts asko egin zituen eta erasora ateratzean indarra falta zitzaien. Beraz, etxean geratu ziren 2 puntuak.

## Emaitzak

MAILAZ MAILA

| LEHEN TERRITORIALA | |
|---|---|
| Leizaran Ernio-Bergara | 18-19 |
| Ford M. Arrasate-Usurbil | 29-22 |
| Arrikrutz-Oñati Kobak | Atsedena |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Arrasate-Cocinas Gross | 26-15 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Urola-Gatz Museoa Jakion | 21-35 |
| C.D. B. Leizaran-Aloña Mendi | 16-22 |
| Antxuri Jatetxea-Bergara | 18-19 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Verkol Aloña-Arrasate | 37-06 |
| A.C. Aiala Zarautz-Bergara | 23-15 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-La Salle Legazpi | 32-19 |
| Arrate-Gatz Museoa Jakin | 41-16 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Verkol Aloña-Ereintza Aguaplas | 20-12 |

• LEHENENGO MAILA

# Bikain jokatu zuten atzo Arrasatekoek

*Bihotzekoak emateko moduko amaiera izan zuen neurketak. Gamarraren azken uneko hiruko saskiratzea zirraragarria izan zen*

MUGARRI ALKESA
**74-72**
A. ESCUELA ALAVA

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (21), Domingo, Maiabiabarrena (1), Mikel Biain, Barberena (12), Herzog, Quintana (15), Hernandez (2), Alarcia (9), Aranburu (3), I. Biain (12) eta Ceciaga.

**A. Escuela Alava** | Toña, Marcaide (3), Fernandez (8), Llano (4), Lopez, Rubio (14), Ogucia (9), Garcia (14), Gutierrez (4), Rodriguez (10), Padal (2) eta Rojo (4).

**Golak:** Lehenengo laurdena 23-22. Bigarren laurdena 40-40. Hirugarren laurdena 56-52. Laugarren laurdena 74-72.

Larraitz Zeberio

Ikustekoa izan zen atzo, domeka, Mugarri Alkesako mutilek Gasteizko A. Escuela Alava taldearen aurka jokatutako neurketa. Arrasatearrak txapelketa ona egiten ari dira aurten, baina atzoko arerioa ez zen edonor, sailkapeneko burua eta oraindik inork menderatu gabeko taldea.

Norgehiagoka oso berdindua izan zen eta ikustea merezi duen horietakoa. Kalitate handiko bi talde atera ziren kantxara eta gogor aritu ziren gainera jokoan.

Etxekoak aurreratu ziren lehenengo markagailuan baina alde txikia izan zuten beti ere aurretik. Bigarren laurdenaren amaieran ezin zen emaitza parekatuagorik lortu: 40 puntutara berdinduta zeuden talde biak.

**BORROKA GOGORRA**

Atsedenaldiaren ostean hiru puntuko aldea lortu zuten Gasteiztarrek berehala. Iturripen ohi baino publiko gehiago zegoen eta bonboa ere eraman zuten Arrasateko taldearen jarraitzaileek.

Quintana eta Gamarraren hiruko saskiratzeek berdinketa ekarri zuten 46 puntutara. Lasaitu egin zen publikoa harmailetan. Gasteizko taldea hutsak egiten hasi zen orduan eta pixkanaka markagailuan aurreratu ziren etxekoak. 56-52 emaitzarekin amaitu zuten hirugarren laurdena.



AITOR LIZARRALDE

Maiabiabarrenak ere lan bikaina egin zuen saski azpitik.

Laugarren zati hasieran gora egin zuten etxekoek eta hamar puntuko aldea egitea lortu zuten. Iturripeko markagailuak 62-52 emaitza jaso zuen une batean.

Lasaitasunak ez zuen luzaro iraun. Gasteizko taldea esnatu egin zen eta gogor estutu zituen Mugarri Alkesakoak erasoan. Hiruko saskiratzeetan ere fin ibili ziren eta norgehiagoka amaitzeko minutu eta erdi falta zenean 69 puntura berdintzea lortu zuten. Hiruko saskiratzea egin zuten orduan Gasteiztarrek, bikoa Arrasatekoek. Harmailetan ohiu batean zen jendea.

Jokoa eten zuen orduan Arrasateko entrenatzaileak. 15 segundo falta ziren amaierarako eta Jagoba Gamarrak hiruko saskiratzea saiatu zuen. Baita lortu ere. Gasteizko taldeak ezin zuen sinetsi.

• SENIOR NESKAK

## Aloñako neskek ligari hasiera txarra eman diote: 21-53

ALOÑA MENDI
**21-53**
C.D. INTERNACIONAL

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendiko neskek txarto hasi dute liga. Zapatu goizean 21-53 galdu zuen talde oñatiarrak Intxaurrondoko taldearen aurka. Ligako lehen partidua izan zen zapatukoa eta hori nabaritu egin zen.

Lehenengo laurdenean 4-16ko aldea atera zion talde donostiarrak etxekoari eta ezinezkoa egin zitzaien Aloñako neskei alde hori murriztea.

Defentsa ona egin zuen Aloñak, baina aurrealdean jaurtiketa asko huts egin zituzten. Bigarren laurdenean gauzak nahiko antzera joan ziren. 8-18 partziala atera zion Intxaurrondoko taldeak Aloñari. Partidua erabakita zegoen arren, etxekoak ez ziren behera joan eta atsedenaren ostean indar handiz kantxaratu ziren.

Azken bi partzialetan emaitza hobea lortu zuten Aloñako neskek. Hirugarren laurdena 3-10 izan zen. Eta laugarren eta azken laurdeneko emaitza 6-9. Partiduaren amaiera aldera defentsa oso ona egin zuten oñatiarrek. Etxeko taldean Estik 6 puntu lortu zituen.

Aloñari asko hobetu beharra daukala nabaritu zitzaion. Ondo entrenatzen ari dira eta emaitzak ikusiko direlako esperantza dute.

• NESKEN BIGARREN MAILA

# Eskoriatzak oraindik ez daki zer den garaipena

ESKORIATZA
**41-57**
BASAURI

**Eskoriatza** | Serrano (5), Laborda (6), Caceres, Prieto, Murillo, Usabiaga (4), Soriano, Exposito (15), Etxeberria (6), Agirrezabalaga eta Alarcia (5).

**Basauri** | Okeluri (11), Basoa (6), Marcos, Santos (4), Ceniceros (13), Legarreta (7), Ruiz, Miguel eta Garabieta (16).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 10-14. Bigarren laurdena 17-24. Hirugarren laurdena 30-41. Laugarren laurdena 41-57.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako neskek ezin izan zuten ligako lehen garaipena eskuratu eta Basauriren aurka 41-57 galdu zuten zapatu arratsaldean.

**PARTIDU BERDINDUENA**

Orain arte ligan jokatu duten partidu berdinduena izan zen zapatukoa. Lehenengo laurdenean 10-14 aurreratu ziren Basaurikoak. Lau puntu atzetik joan arren, Javi Corbalen neskak gogotsu aritu ziren. Bigarren laurdenean aldea murriztea gura izan zuten baina gauzak ez ziren uste bezala atera eta 7-10ko partziala egin zuten. Defentsan nahiko ondo aritu ziren arren, erasoan baloia askotan galdu zuten. Atsedenera 17-24ko emaitzarekin heldu ziren.

**ATSEDENAREN OSTEAN OKERRERA EGIN ZUTEN**

Atsedenaren ostean gauzak ez ziren onera joan. Taldea nekatuta zegoen eta kantxan ez ziren batere gustura aritu.

Defentsan ere huts ugari egiten hasi ziren. Hirugarren partziala 13-17koa izan zen. Partiduari buelta ematea ezinezkoa zen ordurako.

Eskoriatzako neskak ahalegindu ziren etxekoen aurrean irudi polita ematen, baina nekatuta zeuden. Laugarren eta azken partziala 11-16 izan zen. Eskoriatzak ez du ligako partidurik irabazi oraindik. Hala ere, Javi Corbal pozik dago taldekideek egindako lanarekin.



AITOR LIZARRALDE

Yaizak partidu ona jokatu zuen.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **LEHEN MAILA** | |
| Mugarri Alkesa-A. Escuela Alava | 74-73 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| Eskoriatza-Colegio Basauri | 41-57 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Kandy-Alde Zaharra B | 56-58 |
| Errotaundi Okin.-Aloña Mendi | 67-42 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Internacional | 21-53 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Mugarri Alkesa-Ordizia | 75-42 |
| ATCO. SN.SN-Araneta | 55-52 |
| Aloña Mendi-Erroibide | 21-63 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| ATCO. SN.SN.-Mugarri Alkesa | 42-39 |
| Aloña Mendi-Easo-Loyola | 43-70 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Bergara-ATCO. SN.SN. | 26-30 |
| Biurrarena Astig. A-Eskoriatza | 33-35 |

# Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

## Gazteenak izan ziren protagonista Arrasateko bi kiroldegietan

*Iturripe eta Musakola kiroldegietan eskubaloian jokatu zuten neska-mutikoek*

*10:00etan hasi eta eguerdira arte egon zen gaztetxoenen jokoaz gozatzeko aukera*

*Guraso ugari bertaratu zen harmailetara seme-alabak animatzera*

Geaxi Ezpeleta

Asteburuan Iturripe kiroldegian jokatu behar ziren eskola kiroleko eskubaloi partiden inguruan sortutako giroa antzematea genuen helburutzat. Bertaratu eta ume ugari ikusi genituen jokorako prest.

10:30ean iritsi ginen, bi eskubaloi partida hastekotan zirela. Lau talde, hortaz, neska eta mutilez osatutakoak. Nahiz eta, mutikoak gehiengoa ziren lau taldeetako hirutan. Hala ere, mutil zein neska, denak irten ziren zelaira guztia eman eta ondo pasatzeko gogoarekin. Esan beharra dago taldekideak animatzen entzuten ziren oihu gehienak nesken ahoetatik irteten zirela, mutil gehiago ziren arren.

Bestalde, gaztetxoak zeuden zelaitik gora begiratuz gero, harmailak ikusten ziren. Jokalarien jarraitzaile sutsuenez, neba-arreba eta gurasoz, ia beteak. Ezin kale egin, inondik inora, halako zita garrantzitsuari.

**ASTEBURU HONETAN ERE LEHENENGO JARDUNALDIAK**

Zapatukoa izan da Leintz bailarako eskola kirolaren aurrekiroletako lehenengo jardunaldia Arrasaten. Aurreko astean Bergarakoek eta Oñatikoek ekin zioten. Hala, Debagoienean ditugun hiru eskola kirol guneek hasiera eman diote denboraldiari.



GEAXI EZPELETA

**San Viator 4B.** Jon D., Jon G., Jon A., Iñaki, Mikel M., Danel, Josu, Mikel A., Iker eta Xabi.



GEAXI EZPELETA

**Gazteluondo 4A.** Martxel, Ixiar, Lorea, Maia, Josu, Ander G., Imanol, Ander D., Jon B., Iñigo, Josu, Mikel, Markel eta Ander Z.



GEAXI EZPELETA

**San Viator 4A.** Nerea, Ane, Gorka, Amaia, Lide eta Chen Ding ageri dira argazkian.



GEAXI EZPELETA

**Almen.** Xabi, Iker, Ander B., Aitor, Beñat, Amagoia, Julen, Beñat, Manex, Ander Z., Iban, Maddi eta Uxue.

**• NESKA-MUTILEK, ORO HAR, NAHIAGO DUTE BANATUTA JOKATZEA**



**IXIAR ETA LOREA** | GAZTELUONDO 4A

" Denok batera jokatzea nahiago dugu, mutilek hobeto jokatzen dutelako. Elkarrekin aritzea gehiago atsegin dugu bananduta baino".



**MIKEL, JOSU A. ETA JOSU AZ.** | GAZTELUONDO 4A

" Ez zaigu gustatzen denok elkarrekin jokatzea, mutilok bakarrik nahiago dugu. Hau horrrela da neskak oso jokalari txarrak direlako. Hobe izango litzateke bananduta jokatuko bagenu".



**IBAN** | ALMEN

"Banatuta jokatzea hobe litzateke, neskarik gabe. Gainera aurreko urtean mutilak bakarrik ginen".



**MADDI ETA AMAGOIA** | ALMEN

"Banatuta jokatzea nahiago dugu, mutilek guri baloirik pasatzen ez digutelako. Nesken artean lagunak garenez, guk pasatuko genioke elkarri baloia".

## Pilota

• LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

# Gonzalez txapelketako final zortzirenetan dago

*Binaka, Capellan eta Apeztegia 22-12 nagusitu zitzaizkien Del Rey eta Pascuali Bergaran*

Arantzazu Ezkibel

Gonzalezek 11-22 irabazi zion Berasaluzeri domeka arratsaldean Bergarako pilotalekuan.

Azkaineko pilotaria faborito zen lau t'erdiko final zortzirenetako txartela eskuratzeko eta ez zuen huts egin. Partiduko lehenengo sakea Berasaluzek, gorriz, egin zuen eta lehen tantoa ere berarentzat izan zen. Baina Gonzalezek bere nagusitasuna erakutsi zuen eta partidu erdira bera iritsi zen lehenengo, 5-11.

Berasaluze ahalegindu zen partiduari buelta emateko baina sakeetan huts egin zuen. Sake motzegiak atera zituen pilotari bizkaitarrak.

Azkenean, Gonzalez nagusitu zen eta lau t' erdiko txapelketan aurrera jarraitzeko txartela eskuratu zuen Azkaineko pilotariak.



AITOR LIZARRALDE

Gonzalezek hobeto aprobetxatu zituen sakeak

**BINAKAKO PARTIDUAK**

Binakako partiduetan, Capellan eta Apeztegiak 22-12 irabazi zieten Del Rey eta Pascuali. Capellan oso ondo aritu zen partidu guztian barrena. Sakez tanto batzuk egin zituen eta aurrealdean oso joko bizia egin zuen. Bikote urdinak huts ugari egin zituen. Pascualek pilota asko galdu zituen, ez zuen arratsalde ona izan.

Azken partiduan, Larralde eta Zubietak 14-18 irabazi zieten Beleztena eta Laskuraini.

## Munduko Iron Man txapelketa

### Antxintxika taldeko Xabi Lekue lehen euskalduna izan da Hawaiiko Iron Man proba amaitzen

A.G.

Pozik egoteko moduan da Xabi Lekue trintxerpearra. Lehen esperientzia zuen Mundu mailako Iron Man txapelketan eta bere marka hobetzeaz gain, bera izan da helmugara iristen lehenengo euskalduna.

Xabik 9 ordu eta 34 minutuko marka egin zuen zapatuan Hawaiin jokatu zen proban. Bere lehen helburua proba amaitzea zen, eta hori lortzeaz gain, hamar ordutik beherako denbora egin du. Gogoratu beharra dago proba honek hiru modalitate batzen dituela. Lehenik 3.800 metro egin behar dituzte igerian atletek. Ondotik 180 kilometroko ibilbidea dute bizikleta gainean eta azkenik 42 kilometroko maratoia antxintxika.

Asier Oiartzabal azpeitiarrarekin batera joan da Xabi Hawaiira eta lagunak ere marka oso ona egin du, 9 ordu eta 59 minutu, hain zuzen ere.



ARTXIBOA

Xabi Lekue triatleta.

**DOMEKAN BESTE PROBA**

Xabi mendiko bizikletako munduko txapelketarako ere sailkatuta dago eta datorren domekan jokatuko da. Zalantza zuen Xabik proban parte hartu ala ez, neke gehiegi sumatuko ote zuen beldurrez. Antxintxika taldeko Aitor Rementeriak ez du zalantzarik. "Ezin izan dugu berarekin zuzenean hitz egin, baina egin duen marka ikusita eta pixka bat ezagututa lehian izango dugu, ziur".

## Kirol boluntarioak babesteko ekimena



L.Z.

Mikel Lekaroz eta Ignacio Lakuntza hitzarmena sinatzen.

# Arrasateko Udalak lankidetza hitzarmena sinatu du AFEDEGIrekin

Larraitz Zeberio

Debagoieneko Elbarrituendako igeriketa programan izango du eragina lehenik eta behin hitzarmen berriak. Mankomunitateko presidente Ignacio Lakuntzak eta AFEDEGI Gipuzkoako kirol federazioen elkarteko lehendakari Mikel Lekarozek sinatu zuten hitzarmena barikuan.

"Boluntarioak behar dira eta baldintzak hobetu behar dizkiegu", esan zuen Lakuntzak. Mankomunitateak dirulaguntzak eta garraio bekak eskaintzeko konpromisoa hartu du boluntarioen lana kudeatzen duen elkartearekin. Elbarrituendako bost igeriketa talde daude martxan Debagoienean eta 15 boluntariok dihardute lanean haietan.

## Gipuzkoako kluben arteko txapelketa



AITOR LIZARRALDE

Billabonako bikoteak joko hobea egin zuen.

# Bergarako kadeteek irabazi egin zuten eta nagusiek, berriz, galdu

Arantzazu Ezkibel

Egubakoitz arratsaldean Bergarako Perez eta Irizar bikoteak irabazi egin zuten 2-22 Kurpil Kirolak klubeko Ugarte eta Ballesterosen aurka. Partidu oso ona jokatu zuten Bergarako gazteek. Aipatzekoa da Perez aurrelariak eginiko partidua, tanto ugari bere sakeen ondorio izan ziren-eta. Aurrealdean ere joko azkarra egin zuen bergararrak.

**NAGUSIEK GALDU**

Nagusietan berriz, Muguruza eta Herran bikoteak 9-22 galdu zuen Behar-Zanako bikotearen aurka partidu txar batean. Billabonako bikoteak joko hobea egin zuen eta merezita irabazi zuten.



# TELEFONO ZENBAKI BERRIAK

Irakurle, hauek izango dira aurrerantzean
Goienkariako eta Berrigarako telefono zenbakiak:

**Goienkaria**
943 25 05 01
**Iragarki Sailkatuak**
943 25 05 01

**Berrigara**
943 25 05 02
**Faxa**
943 25 05 13

**Hartu kontuan!**

Iruñeara joan da aurten Arrasate Hiria Xake txapelketako lehen saria. Telekomunikazio ingeniaritza amaitzen ari da Oberena Xake elkarteko Miguel Navarro. Esan digunez, ikasketak direla eta ez du nahi beste denbora xakean aritzeko. Bederatzi urterekin jaso zituen lehen xake eskolak. Ordutik hamaika txapelketa jokatu ditu. Zortea lagun izan duela esan digu. Kontua da ospitalean egon zela azken partida jokatu aurretiko lau egunetan. Justu-justuan etorri zen azken jardunaldira.

**MIGUEL NAVARRO** | ARRASATE HIRIA XAKE TORNEOKO TXAPELDUNA

# "Erdipurdi hasi nintzen, baina zortea lagun izan dut torneoaren amaieran"

Larraitz Zeberio

**Argandoña zen faboritoa. Aurreikuspen guztiak hautsi dituzu.**

Iñigo zen torneoko faboritoa, baina azken jardunaldira bost lagun iritsi ginen berdinduta sailkapenaren buruan. Faboritoa zen baina edozeinek lor zezakeen garaipena. Ezin izan zuen barikuko partida irabazi, berdindu egin zuen. Nik ez nuen barkatu. Garaipena eskura nuen.

**Pozik lortutako emaitzarekin?**

Noski. Gainera, entzumen arazo batzuk medio ospitalean egon naiz jokatu aurretiko lau egunetan eta ez nekien azken jardunaldia jokatzera etortzerik izango nuen. Autorik ere ez daukat eta arazoa izan da azken uneraino. Bi xake jokalarirekin etorri izan naiz Arrasatera torneoaren hasieratik, baina txapelketa utzi egin dute biek eta ez nekien egun horretan aita nola ibiliko zen ni ekartzeko.

**Zenbat ordu ematen dituzu xake taularen aurrean?**

Ez nahi beste azken urteotan. Telekomunikazio ingeniaritza ikasketak amaitzen ari naiz eta nire lehentasuna, momentu honetan, ikasketak amaitzea da. Astean lauzpabost ordu besterik ez dut izan xakerako. Gutxi da maila mantentzeko.

**Gogorra izan da, zure ustez, aurtengo torneoa?**

Gaizki hasi nuen torneoa. Jardunaldi gutxiko torneoa izanda akats txiki bat nahikoa da garaipenak ihes egiteko. Nik zorte handia izan dudala uste dut. Pare bat partida oso gogorrak egin zitzaizkidan, baina irabaztea lortu nuen eta horrek konfiantza eman zidan. Azken jardunaldian, edozer gauza gerta zitekeen. Bost ginen 4 puntutara berdinduta eta edonork lor zezakeen garaipena.

**Noiz ikusi zenuen garaipena zurea zela?**

Iñigo Argandoña eta Luis Olaizolak berdindu egin zutela ikusi nuenean. Fran Miguelen aurka ari nintzen eta nahiko ondo gainera. Orduan ikusi nuen partida irabaziz gero aukera handiak nituela torneoa irabazteko.

**Gustatzen zaizu Arrasateko xake torneoa?**

Bai. Hobetzeko beti da interesgarria etxetik kanpo jokatzea eta Josu Tornayk lan handia egiten du Arrasateko torneoan. Nafarroan torneo gutxi antolatzen dira eta Arrasate etxetik nahiko hurbil daukat.

Mailari dagokionez nahiko txukuna da. Inguruko hamar bat xake jokalari gogor aritzen dira eta beti da interesgarria beraiekin jokatzea. Ikasi egiten da.

Gustura aritu naiz aurten. Gogotsu. Luis Olaizolaren aurka jokatutako partida izan ezik gainerako guztiak nahiko luzeak izan dira. Olaizolaren aurka berdindu egin nuen. Gainerakoak landutako garaipenak izan direla esango nuke. Ez dut amore eman.

**Laster duzue Nafarroako taldekako liga, ezta?**

Asteburu honetan eman diogu hasiera. Arrasateko torneoa entrenamendu ona izan da. Gustatzen zait liga jokatu aurretik torneo batean parte hartzea. Ondo etortzen da beti.

**Jesus de Villa da zure entrenatzailea. Esan diozu garaipena lortu duzula Arrasaten?**

Oraindik ez, eta Obera xake elkarteko lagunei ere ez. Herenegun ikusiko dugu elkar Nafarroako taldekako txapelketan eta orduan galdetuko didate bai ospitaleko esperientziari buruz bai Arrasateko txapelketari buruz (Barre).

**Zein helburu duzue txapelketan?**

Irabaztea. Iaz azken jardunaldiko partidan bigarren gelditu ginen eta lastima izan zen. Irabaziz gero Euskadiko txapelketarako eta Espainiako txapelketarako txartelak lortzen dira.

**Beltzekin edo zuriekin jokatzea duzu gustukoen?**

Aitortu behar dut nire prestaketa hobeagoa dela beltzekin jokatzeko. Jokaldi errepertorio handiagoa daukat landuta beltzekin. Baina zuriekin jokatzea ere ondo dago, zu zara eta lehena fitxa mugitzen.




L.Z.

Miguel Navarrok 23 urte ditu eta telekomunikazio ingeniaritza ikasten ari da.

## Sari banaketa datorren barikuan egingo da, Arrasaten

**Barikuan eman zitzaion amaiera aurtengo Arrasate Hiria Xake txapelketari eta Miguel Navarro nagusitu zen.**

**Sei jardunalditan 32 xakelari aritu dira nor baino nor Altamirako egoitzan. Datorren barikuan, hilaren 21ean, egingo da sari banaketa. Aurretik, torneoan parte hartu duten 32 xakelariek partida bizkorretako txapelketa jokatuko dute. Hori, 19:00etan hasiko da.**

**Partida hauek amaitutakoan egingo da torneoko sari banaketa, 21:30ean.**



**"Argandoñak eta Olaizolak berdindu zutenean hasi nintzen amesten garaipenarekin"**

**"Urteotan, ikasketak tarteko, lauzpabost ordu besterik ez dizkiot eskaini xakeari"**

## Sailkapena

| | PUNTUAK |
|---|---|
| 1. Miguel Navarro (Iruñea) | 5 |
| 2. Iñigo Argandoña (Donostia) | 4,5 |
| 3. Luis Olaizola (Donostia) | 4,5 |
| 4. Aitor Alkaide (Aretxabaleta) | 4,5 |
| 5. Cesar Rodriguez (Getxo) | 4,5 |
| 6. Fran Miguel (Aretxabaleta) | 4 |
| 7. Txema Hernando (Arrasate) | 4 |
| 8. Edu Sanz (Donostia) | 4 |
| 9. Josu Tornay (Arrasate) | 4 |
| 10. Isidro Ruiz ( Arrasate) | 4 |

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Margo lehiaketako sariak banatu dituzte Aramaion eta argazkikoak, Bergaran | 24
• Aretxabaletako artistek kultura jaialdia egingo dute eguenean, Afrikaren alde | 27

*Henry Bengoa Inventarium* antzezlana eguenean, Aretxabaletan | 27

**FLAMENKO FUSIOA, JAM ARETOAREN 9. URTEMUGAN**



AITOR LIZARRALDE

Taldeak areto osoari euren arteko giro ona kutsatzea lortu zuen.

**CHAMBAO** | 'FLAMENCO CHILL' ESTILOKO AITZINDARIEK DISKO BERRIA AURKEZTU ZUTEN JAM-EN

# Flamenkoaren eraberritzaileak zergatik diren erakutsi zuten Jam-en

*Soinu akustikoago baten alde egin eta flamenkoa abiapuntu izanda, chill-out giroak eta gitarra espainola modu naturalean uztartzen dakitela erakutsi zuen Malagako taldeak*

Jon Berezibar

Flamenkoa XXI. mendera eraberrituta ekartzearen erantzuleetako batzuk dira Chambaokoak. Fusioaren eta mestizaiaren ikur bihurtuta, oso antzinatik datorren musika honek etorkizuna bermatuta daukala frogatu zuten Malagatik etorritako musikariek. Flamenco-chill delakoaren sortzaileak izan direla ere esaten da, baina orain hamarkada bateko moda horretatik eboluzionatzea lortu eta gaur egun soinu mamitsu eta unibertsalagoa egiten dute. *Pokito a poko* diskoa aurkezteko etorri ziren Bergarara eta, era horretan, polito-polito, ikusleak poltsikoan sartzea lortu zuten andaluziarrek.

Diskoetan aurki daitekeena eta zuzenean entzuten dena, ez da Chambao berdina baina bai bera. Euren musika egiteko erarekin gai dira tonu lasaietatik rumba bizietara pasatzeko eta kontzertuaren zati handi bat bi mutur horien arteko elkarrizketa aberatsean oinarritu zuten. Chill-outa bai, baina bere neurrian, euskaldunei mokorrak mugiarazteko gogoekin etorri ziren-eta Andaluziatik. Horren aurrean, hasiera baten ikusleak hotz bazeuden ere, azkenean LaMarik bete zuen bere egitekoa eta amaierarako ia gehienek jarraitzen zuten txaloekin abestien erritmoa. Jameko ikusleekin harreman bikaina lortu zuten azkenean eta igarri egin zen.

**ZUZENEKOAREN FROGA**

Chambao moduko talde asko programazio eta oinarri elektronikoen menpeko bihur daitezke eta zuzeneko emanaldietan eragozpen bat izan daiteke hori. Chambaok, baina, apustu organikoago bat eginez, zuzeneko instrumentuen alde egin zuen kontzertuan, euren jatorrizko chill-out ikurrari muzin egiteke. Honela, diskoetako abestiak biziago hezurmamitzen dira zuzenean eta taldearen alderdi berri batez jabe gaitezke; oso eskertzekoa da hori. Euren musika benetakoa dela ikustarazi eta bertan zeudenei etiketa zurrunek ezertarako balio ez dutela ulertarazi zieten. Izan ere, chill out estiloak garai baten disko asko saltzeko balio zuen, baina gaur eguneko eskaintzak mardulagoa izan behar du bizirauteko. Bide horretan garatu eta berezko nortasuna dauka Chambao taldeak.

> Elektronikaren menpekotasunetik urrun, mamitsua izan zen joaldia

> Chill-out etiketa kenduta, nortasun berezia badutela erakutsi zuten

FLAMENKO FUSIOA, JAM ARETOAREN 9. URTEMUGAN

## • GUZTIAREN GAINETIK, GIRO ONA SORTZEN SAIATU ZIREN CHAMBAOKOAK



**KEMENA ETA PASIOA.** LaMari, taldeko abeslari eta aurpegi denak, kemen eta ausardia itzela erakutsi du azkeneko bira honetan. Bularreko minbizia dela-eta kimioterapia jasotzen ari da, eta horregatik hainbat kontzertu bertan behera laga behar izan ditu azkenaldian. Hala ere, taula gainera indartsu igo eta jarraitzaileei onena emateko prest zegoela erakutsi zuen zapatuan, pasio eta gar handiarekin.



**FLAMENKOA SUSTRAI.** Erlaxaziorako musika elektronikoa modan zegoen garaian ezagun egin baziren ere, euren musikan flamenkoak eta, oro har, gitarra akustikoak duen pisua handitzen joan da eta baita nortasun ikur bihurtu ere. *Mi primo Juan* edo *Ulere* moduko kantak jo zituzten zapatuko kontzertuan, oinarri-oinarrian buleriak direnak; ikusleen aldetik, txalo zaparrada izan zen erantzuna.



**KUTSU MORISKOA.** Irudian ElEdi, programazioaz eta metalezko instrumentuez arduratzen dena. Saxoarekin bakar-saio bikainak egin zituen ElEdik, aire moriskoak eta modernoagoak tartekatuz. Chambaoren soinu bereziaren erantzuleetako bat dugu gainera bera, LaMarirekin batera hasierako formazioko kide bakarra da-eta. Saxoaz gain, kontzertu amaieran rapeatzera ere irten zen ElEdi, hau da, Roberto Cantero.



**'DUENDEA' KUTSATU GURAN.** Jai izan zuten zapatuan besoak gurutzatuta joaldia ikustera joan zirenak, txaloak jotzea ia nahitaezko izan zen-eta. Ikusleak hotz hasieran, baina poliki-poliki LaMari eta argazkian dugun Eva Jiménez bezala ahurra gorri-gorri eginda amaitu zuen askok. Taldea asko saiatu zen ikusleak eurenganatzen eta azkenean, kostata, baina 'duendeak' irten egin zuen.



**NORTASUNAREN BILA.** Abestiak elektronika lasaiarekin janzten badituzte ere, Chambaokoek ez zioten benetako zuzeneko akustikoaren xarmari muzin egin. Hala, emanaldiaren erdialdean kaxoi flamenkoaren eta gitarra espainolaren laguntzarekin bakarrik buleriak eta sevillanak abestu zituzten. Soinuaren biluzte honekin, taldearen nortasuna erakusteaz gain, zuzeneko egiazkotasunaren froga ere gainditu zuten.



**LAGUN KOADRILA POLITA.** Taula gainean eta zuzenean erakusten du talde batek berez funtzionatzen duen edo ez, eta musikari izateaz gain lagun onak ere badirela ikusi zen zapatuan. Kimika horrekin ikusleak ere taldeko balira bezala inplikatzea lortu zuten eta epeltasun giro horrek emanaldi osoan zehar iraun zuen. Guztiaren gainetik lagunartea eta elkartasuna bultzatzen dituzte malagar hauek.



AITOR LIZARRALDE
Mozarten eta Bachen pieza klasikoekin hasi zuten emanaldia egubakoitzeko kontzertuan.

# Pieza klasiko eta herrikoiek osatu zuten emanaldia

*Hari-laukote batek kontzertua egin zuen egubakoitzean Ibarraundin, errepertorio klasikoarekin nahiz herrikoiagoarekin*

**Non.** Eskoriatzako Ibarraundi Jauregian, Eskola Museoan.
**Zenbat jende.** 60 bat lagun.
**Iraupena.** Ordu bete baino gehiagoko saioa egin zuten musikariek.

J.B.

Abesti sortaren aukeraketarekin asmatu zuen hari-laukoteak egubakoitzean Eskoriatzako Ibarraundi museoan egin zuten kontzertuan. Pieza klasikoenekin hasi eta Irlandako folkarekin amaitu arte, pieza txukunak jo zituzten Xabier Elkorobarrutiak biolontxelo-jotzaileak, eta Amaia Artzamendi, Amaia Garro eta Domentx Uzine biolin-jotzaileek.

Aretoa txikia eta akustika onekoa izateak ere lagundu zuen emanaldian eta horregatik, agian, gero eta ekitaldi gehiago egiten hasi dira Ibarraundin. Pieza klasikoekin hasi zuten kontzertua, Mozart eta Bachen lanak oinarri. Ondoren, Hændelen eskutik, estilo barrokoko piezekin jarraitu zuten. Piezarik hunkigarri eta politenak izan ziren lehen hauek, lau musikariek ederto eta gustura jo zituztenak, euren aurpegiek islatzen zutenez. Saioaren bigarren zatian abesti herrikoiagoak jo zituzten. Horien artean oso txalotuak izan ziren *Maitia nun zira* edo Lertxundiren *Erribera jota*. Emanaldiaren azken zatian Elvis Presleyren *Can´t hel falling in love* edota *Memorias de Africa* filmaren soinu banda jo zituzten. Azken opari moduan, Irlandako folk abesti ezagunekin amaitu zuten emanaldia egubakoitzean.

Hari-laukotea orain 15 urte sortu zuten ikasle zirenean eta ordutik ehunka kontzertu egin dituzte. Amaia Artzamendi, gainera, Eskoriatzako musika eskolako irakaslea da gaur egun.

ANTZERKIA I **HIKA ANTZERKI TALDEAREN 'ZETA'**

# Aktoreek sinesgarritasuna ematen diote bidaia liburuari

**Non.** Arrasateko Amaia antzokian.
**Zenbat jende.** Ia 100 lagun.
**Iraupena.** Ordu eta erdi.

Asteleheneko Goienkaria

Alessandro Bariccoren *Zeta* bidaia liburuaren moldaketa sinesgarria taularatu zuen Hika antzerki taldeak atzo Arrasateko Amaia antzokian. Liburuaren moldaketa nahiko fidela da antzezlana eta horretan esangura handia du pertsonaien sinesgarritasunak. Liburuko pertsonaien esentzia ekartzea lortzen dute aktoreek (Itziar Ituño, Victor Criado, Kandido Uranga, Lierni Fresnedo, Arantxa Iglesias, Mikel Tello, Patxi Gonzalez eta Marina Aparicio). Bigarren lan handi bat ere badute: Bariccoren bidaiak moldatzea taula gainean eta hor ere asmatzen dute. Horretan bideo proiekzioek asko laguntzen diete.

Eszenografia fina, sotila, baina dotorea dauka *Zeta*k eta argiztapenak aparteko aipamena merezi du, dramatikoki eta narratiboki egokia baita.

Oro har, Agurtzane Intxaurragak zuzentzen duen eszenaratzea orijinala da.

**LIBURUA TAULA GAINERA**

Alessandro Baricco idazlearen eleberri ezagunaren moldaketa da *Zeta*, Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurragak egokitua. Protagonistak Japoniara egindako bidaiak azaltzen dira antzezlanean, eszenografia benetan ederrarekin. Funtsean amodio istorioa da *Zeta* lanean kontatu gura dena, eleberrian hain garrantzitsua den eduki poetikoa oso aintzakotzat hartuta.



AITOR LIZARRALDE
Taularatze sutila, dotorea, egin zuen Hikak *Zeta* antzezlanean.



**ANTZERKIA** | YLLANA TALDEAREN '666' ANTZEZLANAK LEPO BETE ZUEN ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIA EGUBAKOITZEAN

# Yllanakoek "popatik hartzera" bidali ezean eserita egongo ginateke oraindik

*Heriotzaren korridoreko ateak ireki bezain laster hasi ginen ikusleok barrez eta halaxe egon ginen ordu eta hiru laurdenez*



AITOR LIZARRALDE

Lehen mailako matxismoaren bueltan sortu dute antzezlana eta matxismo horri ere egiten diote barre. Amaierako satiro zakil handiak ez dira kasualitatea.

**Non.** Elgetako Kafe Antzokian.
**Zenbat jende.** Aretoa lepo bete zen.
**Iraupena.** Ordu eta hiru laurden.

Monika Belastegi

Lau preso dira. Heriotzaren korridorean daude eta edozer gerta daiteke dauden espetxean: edozein biolentzia mota, sexu jarrera edo ankerkeria. 666 zenbakia daramate espetxeko uniforme laranjan. Horrek ere zerbait esan nahiko du...

Korridoreko hesia ireki orduko hasi ziren barre algarak Espaloia aretoan. Askotariko zikinkeriak egin zituzten lau presoek: pixa pixontzian eta gero edan edo ikusleei bota, bortxaketa sodomitak... Ikusle bat baino gehiago presoek isuritako semen zorrotada –plastikozko zakilak ere halakoak ziren– alkandoratik ezin kendu ibiliko da, oraindik.

Oso gizon dira, oso zangar, baina amets ere egiten dute, nahiz eta dauzkaten fantasiak bereziak izan. Oso lortuta dago, esaterako, presoetako batek kalean ikusten duen jendea hiltzen duela amets egiten duenean, eskolatik irteten dauden neska-mutikoak barne.

**KOMUNIKATZEKO GAITASUNA**

Aktoreek ez dute hitzik egiten –hamarren bat antzezlan guztian–. Zaratez, onomatopeiez eta gorputzaren espresioaz baliatzen dira komunikatzeko, eta horretarako duten gaitasuna apartekoa da. Baita adierazten dituzten egoerak, latzak izan arren, imajinazio eta umorez –umore beltzez– janzteko duten abilezia ere. Komunikatzeko duten gaitasunaren neurgarririk onenak izan ziren Espaloian batu ziren ikusleen etengabeko barre algarak eta sortu zen *feed-back*a.

> Hitzik egin ez arren, komunikatzeko duten gaitasuna aparta da

> Ikusleek etengabeko barre algarak egin zituzten; baita *feed-back*a sortu ere

**IKUSLEEKIN JOLASEAN**

Ikusleok barre ugari egin genuen, baina baita aktoreek ere. Ikusleen artean sortu ziren egoeren aurrean inprobisatu eta horiez ere baliatu ziren guztion gozamenerako; esaterako, ikusle baten sakelako telefonoak jo zuenean eta beste batek argazkiak flash eta guzti egiten jardun zuenean.

Bukaerako txalo zaparrada eta oihuek argi laga zuten ikusleek ezin hobeto pasatu zutela. Inork ez zuen aulkitik altxatu nahi. Behin baino gehiagotan irten behar izan zuten agur egitera Jose O'Cornee, Antonio de la Fuente, Fidel Fernandez eta Raul Cano aktoreek. "Popatik hartzera" bidali izan ez bagintuzte, oraindik han eserita egongo ginateke.



**ROCK TALDEAK** | TWIST, PUNK ETA ROCK-AND-ROLL JAIALDIA

# Twist erritmoak eta punk-rocka, hurrenez hurren, The 5 Twisters-ekin

*Twist eta rock bandekin, aspaldiko partez, rock&rolla itzuli zen zapatuan Arrasateko Gaztetxera*

Asteleheneko Goienkaria

Punk-rock gaua egin zuten zapatuan Arrasateko gaztetxean, The Lost Girls, The Lost Souls eta The 5 Twiasters taldeekin. Horiekin batera, Boogie Van taldea ere jotzekoa zen, baina azkenean horien saioa bertan behera utzi behar izan zuten eta aipatutako hiru taldeek eskaini zituzten kontzertuak. Hala eta guztiz ere, gutxiago izan arren, jaialdi polita egin zuten eta jendez beteta egon zen aretoa.

Arrasateko The Lost Girls talde gaztea izan zen gaubela hasteko arduraduna. Herrikoak izanda, lagun eta jarraitzaile ugari gerturatu ziren gaztetxera. Eurekin batera, gainera, lagunak animatu egin ziren eszenatokian abestera eta giro oso polita ipini zuen neska laukoteak. Ikusle dezente bildu zuten neskek, beraz.

Giroa dagoeneko berotuta, Arrasateko beste laukote baten txanda iritsi zen: The Lost Souls. Hauek ere emanaldi bizia egin zuten zapatu gauean. Arrasatearrek eszenatoki gainean bikain molda daitezkeela frogatu zuten eta punk-rock abesti ezagunez betetako emanaldia egin zuten.

**TWIST ETA ROCK&ROLLA**

Boogie Vanekoek kale eginda, The 5 Twisters izan zen jaialdia amaitu zuen taldea. Aurrez ere Gaztetxean jotakoak ziren eta aurrekoetan bezala kontzertu bizia eskaini zuten. Azken diskoko abestiekin batera, betiko abestiak jo zituzten.



AITOR LIZARRALDE

The Lost Souls-ek rock abesti ezagunekin egin zuen kontzertua.



PINTURA LEHIAKETA ARAMAION | **47 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE**

Eguaztenean ageriko margo lehiaketa egin zuen Emakume taldeak Aramaion. 47 lagunek hartu zuten parte eta sariak ere egunean bertan banatu zituzten. 16 urtetik gorakoetan Juan Jose Altuna bergararrak jaso zuen lehen saria; Carlos Espigak, bigarrena eta Raimundo Argosek, hirugarrena. 16 urtetik beherakoetan, berriz, Eider Ballina aramaioarrak jaso zuen lehen saria; Eider Altube aramaioarrak, bigarrena eta Danel de Pradok, hirugarrena. Lanok ikusgai daude Saspiña aretoan hilaren 22ra arte. | M.B.



ARGAZKI LEHIAKETA BERGARAN | **19 LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE**

Egubakoitzean banatu zituen Pol-Pol Argazki Taldeak San Martin jaietan egindako rallyko sariak. Diapositibetan, Soraluzeko Fernan Goñik jaso zuen lehen saria; bigarrena, Bergarako Jose Aguadok eta Luis Fco. Llavori zumaiarrak, hirugarrena. Herritarraren saria, Joseba Leturiak eraman zuen. Argazki digitalean, berriz, Benito Cantero bergararrak jaso zuen lehen saria; bigarrena, Zumaiako Peio Romanetek eta hirugarrena, Juan Antonio Untzurruntzaga bergararrak. Herritarraren saria, Josean Arenazak eraman zuen | M.B.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak /4quattro4 /arregi /atai /azkarate /joseba /BZ-sistemas /gallastegi /garaia /guztizeder /korozabaleta /lilura /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando /udalatx /udalaitz





# TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria

**BERRIKUNTZAK:**

- **PROGRAMAZIOA**
  Etenik gabeko programazioa
  (13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
  Orduoro eta inor baino lehenago
  (laurden gutxi guztietan)

**SAIO BERRIAK:**

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa



Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

Mungiarra izanik, orain dela ehun urte jaio eta gerran fusilatu zuten poeta handiaren omenezko ekitaldietan parte hartzeko grina bazuen Rafa Ruedak, Lauaxetaren poemekin kanta bilduma egiteko agindua jaso zuenean, Mungiako Udaletik. *Ehungarrenean hamaika* izeneko diskoa eta ikuskizuna osatu du, beste hamar abeslari eta Edorta Jimenezen laguntzarekin. Ordu eta laurdeneko saioa osatu dute eta bihar, martitzena, estreinatuko dute Elgetako Espaloia kafe antzokian.

**RAFA RUEDA** I MUSIKARIA, KONPOSITOREA ETA *EHUNGARRENEAN HAMAIKA* LAUAXETAREN OMENEZKO LANAREN ZUZENDARIA

# "Lauaxetak beti izan du poeta zailaren fama eta horregatik musikatu dute gutxitan"

Marijo Deogracias

**Nondik nora sortu zen *Ehungarrenean hamaika* proiektua?**

Lauaxeta jaio zela 100 urte betetzen direla eta, Mungiako Udala omenaldi guztiak koordinatzen aritu da eta handik proposatu zidaten Lauaxetaren poemekin egindako kanten bilduma bat egitea. Orain arte hainbat jenderekin egindako kanta bildumetan hari bat falta zela igartzen da eta horren aurrean, erabaki nuen ni neu izatea haria. Abeslariei poemekin egindako kanta biluzia eskatzea erabaki nuen eta nik neuk kanta horien konponketak egin eta bandarekin kanta janztea zen asmoa. Eurek aukeratu dituzte poemak eta oinarrizko melodia eta nik bandarekin egin dizkiet konponketak. Nire ustez, lanak asko irabazi du; hain desberdinak diren kantariekin proiektu oso bat eratzea lortu dut.

**Imajinatzen dut Mungiako Udala ere gustura laga duzula.**

(Barreak). Baietz espero dut, behintzat kantariak eta diskoetxea pozik daude atera dugun lanarekin. Niretako ere, sekulakoa izan da, batetik kantak egitea gauza oso pertsonala izanik –oso zaila da inoren eskuetan lagatzea zure seme-kanta– handia delako nire eskuetan utzi izana kantari bakoitzak bere semetxoa eta bestetik, eurak ere pozik geratu direnez, neu gusturago.

**Konfiantza erakutsi badizute, lana ondo egiten duzun seinale.**

Behintzat euretariko bakoitzarekin garagardo bana hartzeko beste bai (barreak).

**Hamaika abeslariak nola aukeratu dituzu eta zergatik hamaika?**

Zenbakiaren sinbologiak jokoa ematen duelako eta aukeraketa nola? Kantuarekiko eta bizitzarekiko filosofia nirekin konpartitzen duen jendea aukeratu dut eta gainera, nire gustuko kantariak dira. Zerrenda luzeagoa zen, baina batzuek ezin izan dute parte hartu. Bestetik, Lauaxetaren kontua alde batera lagata, nire betiko amets bat betetzeko aukera izan da proiektua. Asko gustatzen zait kantak egitea eta baita besteek egiten duten lanekin jolas egitea ere. Aspaldi nahi nuen beste kantari batzuen kantak moldatzea eta kantari hauek guztiak lagunak izanik, oso erraza izan da zerrenda osatzea. Hamar minutuan osatu nuen zerrenda.

**Hortaz Lauaxetari esker on bikoitza zor diozu.**

Bai, alde batetik, Lauaxetaren poemekin lan oso gutxi egin delako –Antton Valverdek bere garaian egin zuen lan bikaina alde batera lagata– eta beti izan duelako poeta zailaren fama, ulergaitzarena, eta agian, horregatik gutxi musikatua.

Hori horrela ez zela erakusteko balio izan dit lanak eta atera den produktuan naturaltasuna nabari da: testuak ez dira arrotzak eta hizkera berezia izan arren, nahiko ulergarriak suertatzen dira.

**Bista-bistako galdera: hamaika kantariak gizonezkoak dira. Zergatik?**

Kasualitate hutsa izan da. Hala ere, kantari eta autoreen zerrenda osatzeko orduan, zoritxarrez, oso zaila da emakumezkoekin zerrenda osatzea. Hori, alde batetik –gure gizartearen erakusgarri–; gainera, zerrendatuen artean zeudenek ezin izan dute parte hartu. Bestetik, filosofikoki emanaldietan Lauaxetarekin oso lotuta dago emakumeen gabezia hori.

**Elgetakoaz gainera, beste bost saio egingo dituzue.**

Oso zaila izan da musikari guztien agendak bateratzea. Orain arte gutxitan ikusi izan dira hamaika kantari batera ikuskizun batean, lotura duen ikuskizun batean. Gauza oso bitxia da eta eurek ere gogoa erakutsi dute parte hartzeko eta hori ere igartzen da.

**Lauaxetazaleei, zuen zaleei ala nori zuzendutako ikuskizuna da?**

Batetik, musika eta bestetik, poesia uztartzen dituen lana da, hortaz poesiazaleei eta musikazaleei zuzenduta dago. Poesia eta musika oso lotuta daude; poema bakoitzak musika dauka barruan, hortaz, edozein gerturatuko da. Hori bai, musika aldetik, kontzeptua nahiko zabala da, baina pop-rock ildotik bideratu dugu. Hala ere, publiko zabalari zuzendua da.

**Zer egingo duzu hau amaituta?**

Oso gustura nago asteon Urdangarinekin hasi ditugulako zuzenekoak. Bestalde, otsailean bakarkako bigarren diskoa grabatzen hasi nahiko nuke; oraintxe hasiko naiz kantak moldatzen. Denbora antolatzea da hurrengoa.

"Kantuarekiko eta bizitzarekiko filosofia nirekin konpartitzen duen jendea aukeratu dut"

"Musika aldetik, kontzeptu nahiko zabala da proiektua, baina pop-rock ildotik bideratu dugu"



GAZTELUPEKO HOTSAK

Rafa Ruedak zuzendu du *Ehungarrenean Hamaika*.

## Bihar estreinatuko da 'Ehungarrenean hamaika' ikuskizuna Elgetako Espaloian

*Ehungarrenean hamaika* ikuskizuna martitzenean estreinatuko dute Elgetako Espaloian. Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta (Ken 7), Rafa Rueda, Jabier Muguruza, Anje Duhalde, Txuma Murugarren, Petti, Xabier Montoia, Xabi Strubell eta Francis Diez (Doctor Deseo) musikariek parte hartu dute, kanta banarekin, Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak atera duen lanean. Rafa Ruedak egin ditu moldaketak, bai eta kantuetako bat ere, eta martitzenean Elgetan estreinatu ostean (20:00), Mungian (urriak 2), Iruñean (urriak 26), Bilbon (azaroak 8), Donostian (azaroak 24) eta Durangon (abenduak 10) erakutsiko dute *Ehungarrenean hamaika*. Martitzenean jarriko dute salgai diskoa. Rafa Ruedak hauxe esan digu *Ehungarrenean hamaika* ikuskizuna azaltzeko: "Narratzaile eta musikarien, edo Lauaxetaren, arteko elkarrizketa bat da. Eszenatokia bitan banatuta, alde batean narratzailea egongo da Lauaxetari interpelazioak egiten eta beste aldean, Lauaxetak, kanten bitartez erantzunak emango ditu.

Kantetako tematikaren inguruan elkarrizketa antzeko bat eratzen da eta Lauaxetaren bizitzari buruzko hausnarketa batzuk azaltzen dira. Gainera, orain arte publikoaren aurrean erakutsi ez diren irizpide batzuk landu ditugu, Lauaxetarekin publikoki loturarik izan ez duten garai batzuk agertzen direlako. Uste dut Lauaxetaren aurpegi berriak ikusiko direla ikuskizunean". Gidoia eta ikuskizuna atontzea Edorta Jimenezen ardura izan dira.



# Bi antzezlan eta errezitaldi bat ekarriko ditu Kultur Errotak datozen egunotan

*'Henry Bengoa Inventarium', 'Arrautza delikatuak' eta '28 letra eta 7 nota' emanaldiak izango dira ibarrean*

Leire Kortabarria

Bi antzezlan eta errezitaldi bat izango dira datozen egunotan. Tartean, debagoiendar baten, Mikel Laskurainen, antzezlan bat izango da. Hiru lanak Topagunearen Kultur Errota egitasmoaren barne datoz, euskarazko kultura emanaldiak formatu txikian herriz herri eramateko helburuarekin.

**HARIAK**

Eguenean, hilak 20, *Henry Bengoa Inventarium* bakarrizketa egingo du Kandido Uranga aktoreak Aretxabaletako udaletxe zaharrean, 19:00etan. Urangak berak sortutako bakarrizketa da, Bernardo Atxagaren liburutik abiatuta. Bakarrizketa soila barik, musika –Ruper Ordorikaren abestiak, tartean– eta irudiak erabiltzen ditu.

Egun berean, Bergarako Go-Jam aretoan, 19:00etan, *28 letra eta 7 nota munduari itzulia egiteko* literatura eta musika emanaldia egingo dute. Patxi Zubizarreta idazleak bidaien gaineko testu ederrak errezitatuko ditu, eta Jabier Mugurutzak, Txema Garcesek eta Joseba Loinazek musikarekin ere bidaiatzen lagunduko digute.

Hilaren 21ean, egubakoitza, *Arrautza Delikatuak* lana antzeztuko dute Teresa Andonegik eta Mikel Laskurainek Arrasateko Jai Zale tabernan, 23:00etan. Emakume batek Elorrioko euskararen gaineko ikerketa-lana aurkeztuko die ikusleei, baina horko gizon bat ez dago konforme, eta emakumearekin eztabaida hasiko du.

**ABENDURA BITARTEAN**

Urte bukaerara bitartean, emanaldi gehiago ekarriko ditu Kultur Errotak: bi kontzertu, hitzaldi bat eta txotxongilo emanaldi bat.

## Labur

### Perura bidaia baten gaineko diaporama emango dute Bergaran

*Peru, eguzkiaren atarira bidaia* izenburupean, Perura egindako bidaia bateko diapositibak erakutsiko dituzte Mila Gallastegik eta Asier Arantzabalek eguenean, hilak 20, Bergarako Aroztegi aretoan, 18:30ean. Andeetako musika-tresna tipikoen doinuek girotuko dute emanaldia.

Argazki zaindu batzuen bitartez, Peruko herritarrak, paisaia ikusgarriak, kultura, historia eta pasadizoak gerturatuko dituzte egileek. Bidaia 2003an egin zuten kanoaz, oinez, kamioiz eta trenez.

### Kirol argazki lehiaketan parte hartzeko aukera dute zale guztiek



Bergarako 15. Kirol Argazki Lehiaketa zabalik dago edonongo zaleendako, eta lanak udaletxera bidali behar dira. 640 euro daude saritan banatzeko. Bergarako Udalak antolatzen du, Pol-Pol argazki taldearekin; irudian, Benito Cantero antolatzailea.

### Ordenagailuen gaineko bi ikastaro emango dituzte laster Oñatin

Ordenagailuen gaineko bi ikastaro antolatu ditu Oñatiko Udalak, eta horietan izena emateko aukera zabalik duzue.

Batetik, emakumeendako informatika ikastaroa hasiko da azaroan, eta izena emateko, Ikas Hiru akademiara joan behar duzue. Egun eta orduak parte hartzen dutenekin adostuko dituzte. Bestetik, etxeetako ordenagailu sareen gaineko ikastaroa emango dute Gabonak eta gero. Izena emateko, jo Udal Teknologia eta Informazio-Gizarte Zerbitzura (943 03 77 00 da telefonoa).

## Hitzorduak



**ARETXABALETAKO ARTISTEN KULTURA JAIALDIA, AFRIKAREN ALDE |**
Hiruatxen elkarlan proiektu berri bati laguntzeko antolatu dute ekitaldia

Eguenean, hilaren 20an, Aretxabaletako Artisten Kultur Jaialdiaz gozatzeko aukera izango da Basabeazpin, 19:30ean. Egitarau oparoa prestatu dute: Eutsi Biziari bakarrizketa, Beñat Zamalloaren eskutik; eta, segidan, musika eskolako trikitilarien, Aretxabaletako abesbatzaren (irudian) eta herriko akordeoi orkestraren kantu eta musika emanaldiak izango dira. Sarrera doan da.

Ekuatore Ginean kooperazio proiektua hasi gura du Hiruatxek, eta horri laguntzeko antolatu dute jaialdia. Kutxan eta Euskadiko Kutxan kontu bana zabaldu dute diruz lagundu gura dutenendako.

**ZINEMA |**

**• *Sr. y Sra. Smith* filma emango dute Arrasaten**
Film hori ikusteko aukera dago gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean. .

**• *La madre del novio* filma emango dute Oñatin**
Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean. Ikuslearen eguna da.

**• *Comer, beber, amar* filma emango dute Elgetan**
Espaloia antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

**• *La flaqueza del bolchevique* filma, Oñatiko zineklubean**
Eguenean, hilak 20, emango dute film hori kultura etxeko zinema aretoan, 20:30ean.

**ERAKUSKETAK |**

**• Iñaki Rivieren margolanen erakusketa Arrasaten**
Iñaki Riviere margolari arrasatearraren 15 lanen erakusketa dago Maala errabaleko 8. zenbakiko Arregi markoztatze dendan. Teknika aldetik, olioak dira; gaiei dagokienez, paisaiak eta hiri-ikuspegiak, eraikinak eta arkitektura.

**• Oñatiko III. Ageriko Margo Lehiaketako lanak**
III. Ageriko Margo Lehiaketako lanen erakusketa urriaren 23ra bitartean izango da zabalik kultura etxean, egunero, 18:30etik 20:30era.

**• Kilometroak 05en aldeko margolan salmenta**
Kilometroak 05en aldeko margolan salmenta dago hil osoan Arrasateko Harresi aretoan. 20 bat margolari gipuzkoarren lanak daude han erakusketan.

**• Lausardi abesbatzaren emanaldirako sarrerak**
Donato Goyenecheren *Afrika* emanaldia egingo du abesbatzak zapatuan, 22:00etan, pilotalekuan. Sarrerak salgai daude, 10 eurotan, Lazkano zapata dendan, Bilintxen eta kultura etxean. Lehiatilan 12 euro.

**IKASTAROAK |**

**• Internet ikastaroak Aretxabaletako KZGunean**
Oinarrizko Internet ikastaroa emango dute KZGunean. Gaur, astelehena, da lehenengo eguna. Urriaren 28ra bitartean emango dute. Ordutegia da 09:00etatik 11:00etara.

**• Acrobat programaren gaineko ikastaroa Antzuolan**
*Adobe Acrobat Reader* izeneko ikastaroa emango dute eguenean, hilak 20, Antzuolako KZGunean, Olaran etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**• Emakumeen historiaren gaineko tailerra Arrasaten**
Emakumeen historiaren gaineko tailerra izango da urriaren 20tik 27ra bitartean Emakume Txokoan. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

**HITZALDIAK |**

**• Antzuolako baserrien gaineko hitzaldia, atzeratuta**
Antzuolako baserrien inguruko hitzaldia datorren eguenean, hilak 20, egitekoa zen, baina azaroaren 3ra atzeratu behar izan dute.

**LEHIAKETAK |**

**• Okelar bertsopaper lehiaketa antolatu dute**
Okelar bertsopaper lehiaketa deitu du Mutrikuko Bertso Eskolak bi kategoriatan: 16 urte artekoena eta adin horretatik gorakoena. Mugaeguna da azaroaren 21a. Argibide gehiagorako, bidali mezu bat *mbe@gaztesarea.net* helbidera.

**• 11. Antzuolako Argazki Lehiaketa zabalik dago**
11. Argazki Lehiaketa deitu du Udalak. Paperezko argazkiendako, 150 eta 90 euroko sariak izango dira; argazki digital onenarendako, 100 eurokoa. Lanak Antzuolako Udaletxera bidali behar dira. Muga-data da urriaren 27a.

**• Aramaioren gaineko argazki lehiaketan parte har daiteke**
Aramaioren gaineko argazki lehiaketa deitu du Udalak. 200, 150 eta 100 euroko sariak emango dituzte. Lanak entregatu behar dira udaletxean edo kultura etxean hilaren 28a baino lehen.

## Eguraldia



| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Astelehena, 17 | Martitzena, 18 | Eguaztena, 19 | Eguena, 20 | Egubakoitza, 21 |

### Aste bihurri samarra iragarri dute adituek. Gaurko euri arriskua dago

Hego haizeak gurekin segituko duen arren, gaur, arratsalde partean euria egin dezake, tanta batzuk badira ere. Goizetik sartuko da goialdeko lainoa eta zerua estaltzen joango da. Hala ere, euri arrisku txikia izango dugu.

Biharko, ostera, lainoa nagusituko da goizetik eta tenperaturan ere igarriko dugu beherakadatxoa.

Eguazten eta eguenean tenperatura egonkortu egingo da, baina egubakoitzerako berriz ere frente hotz bat sartuko zaigu eta beherantz egingo dute termometroek pixka bat. Euria egiteko arriskua dago astea amaitzeko.

## Goardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 17** | Azkoaga | Ferrerias, 1 (943 79 15 15) |
| **Martitzena, 18** | Azkoaga | Iturriotz, 17 (943 79 79 99) |
| **Eguaztena, 19** | Korkuera | Maixu Aranbarri, 1 (943 79 22 26) |
| **Eguena, 20** | Irizar | Erguin kalea, 11 (943 79 12 39) |
| **Egubakoitza, 21** | Amezua | Santa Maria, 33(943 79 09 74) |

**BERGARA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 17** | Estella | Matxiategi, 5 (943 76 19 63) |
| **Martitzena, 18** | Mozos | Iparragirre, 2 (943 76 12 15) |
| **Eguaztena, 19** | Camacho | Oxirondo, 4 (943 76 16 87) |
| **Eguena, 20** | Zabala | Barrenkale, 25 (943 76 16 87) |
| **Egubakoitza, 21** | Guallar | San Antonio, 5 (943 76 11 05) |

**OÑATI**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 17** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |
| **Martitzena, 18** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |
| **Eguaztena, 19** | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| **Eguena, 20** | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| **Egubakoitza, 21** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |

**ARETXABALETA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 17** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Martitzena, 18** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Eguaztena, 19** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Eguena, 20** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Egubakoitza, 21** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |

## Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## Zozketak

**BONOLOTOA**

Astelehena, 10
**2 • 7 • 9 • 16 • 18 • 41**
Osagarria: 6 | Itzulketa: 3

Martitzena, 11
**3 • 4 • 6 • 12 • 14 • 16**
Osagarria: 32 | Itzulketa: 5

Eguaztena, 12
**2 • 5 • 8 • 41 • 43 • 46**
Osagarria: 25 | Itzulketa: 9

Egubakoitza, 14
**6 • 16 • 21 • 27 • 39 • 48**
Osagarria: 4 | Itzulketa: 5

**ONCE**

| | |
|---|---|
| Astelehena, 10 | **32.867** |
| Martitzena, 11 | **97.360** |
| Eguaztena, 12 | **jai eguna** |
| Eguena, 13 | **37.102** |
| Egubakoitza, 14 | **74.796** |
| Kupoitzarra (120 seriea) | |
| Domeka 16 | **34.050** |
| Kupoitzarra (018 seriea) | |

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 13
**11 • 13 • 26 • 29 • 30 • 37**
Osagarria: 5 | Itzulketa: 56

Zapatua, 15
**8 • 10 • 14 • 38 • 39 • 43**
Osagarria: 17 | Itzulketa: 1

Domeka, 16 (Saritzarra)
**3 • 12 • 23 • 50 • 51**
Osagarria: 3

## Gazte zerbitzuak

**BEKAK**

• **Zientzia eta teknologia.** Nazioarteko erakundeetan espezializatzeko zientzia eta teknologiako ikertzaile, teknologo eta kudeatzaileentzako 35 beka. Epea: Urriak 25.

• **"Turismo Espainia 2005".** Espainian zein atzerrian turismoari buruzko lan praktikak eta ikerketak burutzeko. Epea: urriak 24.

**LANA**

• **Erizaintzako Diplomatuak.** Unibertsitateko Diplomatuen itxaron zerrenda, Oreretako Zaharren Egoitza Udal Patronatuko langileen aldi baterako premiei erantzuteko. Epea: urriaren 28ra bitartean.

• **Zuzendaria.** Zuzendari bat *Barren* Aldizkarirako. Epea: urriak 21.

**IKASTAROAK**

• **Gazte Bulegoan** dugu herrian antolatu diren ikastaro guztien berri. Zatoz eta informa zaitez.

• **Laneko arriskuen prebentzioa.** Urolalde Formazio Zentroan. Unibertsitate ikasketadunei zuzenduta, azarotik ekainera. Epea: urriak 31.

**LEHIAKETAK**

• **Erreportaje lehiaketa.** *Argia* astekariak antolatuta. Argitaratu gabeko erreportajeak. Gaia, librea. Hiru kategoria: erreportaje laburra, erreportaje luzea eta Interneteko erreportajea. Epea: urriak 28.

• **Ipuin lehiaketa.** Zumaiako Udala. 18. Julene Azpeitia Ipuin lehiaketa. Lanek euskaraz idatzita egon behar dute. Gaia librea izango da.
Epea: urriak 20.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com




**Antzuola:**
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
**Elgeta:**
•Kioskoa
**Bergara:**
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
**Arrasate:**
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Kurruxko okindegia
**Aretxabaleta:**
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
**Eskoriatza:**
•Dorleta liburudenda
**Leintz Gatzaga:**
•Labidea
**Aramaixo:**
•Plazako kioskoa
**Oñati:**
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE
**Ainhoa Garcia**
Urriaren 10ean, 3 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Maialen Sampedro**
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak! Aitita eta amamaren partetik.



ARRASATE
**Maider Alonso**
Urriaren 11n, 5 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Ane Arregi**
Urriaren 13an, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Mikel Etxezarreta**
Urriaren 15ean, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Teresa Martin**
Urriaren 15ean, 92 urte, Zorionak! Maite zaituztenen partetik.



ARRASATE
**Txomin Arriaran**
Urriaren 21ean, 4 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Iñaki Olabarria**
Urriaren 18an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak, Alazne eta Malen.



BERGARA
**Alazne Olabarria**
Urriaren 21ean, 3 urte. Zorionak! Etxekoak, Iñaki eta Malen.



BERGARA
**Oier Pescador**
Urriaren 19an, 2 urte. Zorionak! Leire, Laura eta Maria.



BERGARA
**Haizea Bengoa**
Urriaren 12an, 2 urte. Zorionak! Aitatxo, amatxo eta Garazi.



BERGARA
**Malen Olañeta**
Urriaren 21ean, 4 urte. Zorionak! Etxekoak, Alazne eta Iñaki.



ESKORIATZA
**Gorka Errasti**
Urriak 16an, 9 urte Zorionak eta urte askotarako plazako kuadrilaren partez.



ESKORIATZA
**Bittor Barandiaran**
Urriaren 17an, 8 urte. Zorionak *kakaues*! Mila muxu etxekoen partez.



OÑATI
**Sara Isasisasmendi**
Urriak 10ean 2 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



OÑATI
**Beñat Ugarte**
Urriaren 17an, 12 urte. Zorionak! Ama, osaba, izeba eta lehengusuak.



ARAMAIO
**Teresa Arriolabengoa**
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Familia.



ARAMAIO
**Maia Villaba**
Urriaren 20an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARAMAIO
**Beñat Burgi**
Urriaren 11n, 11 urte. Zorionak. Etxekoen partetik.



ANTZUOLA
**Nico Garcia**
Urriaren 13an, 33 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ANTZUOLA
**Leonor Raya**
Urriaren 23an, 70 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

**Zorionak!**
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Jaiotakoak



**Hafsa Laouar Ghfouri**
Aretxabaleta • 3,610 Kg. Urriak 11. Gurasoak: Lammar (Laovar) eta Iman (Ghfouri). Argazkian: Hafsa aitaren besoetan, bapo lo.



**Paula Valcarce Elkoroiribe**
Oñati • 3,900 Kg. Urriak 12. Gurasoak: Jose Luis eta Miren (Oñati). Argazkian: Paula aitaren besoetan, bapo lo.



**Miren Moiñux Garcia**
Bergara • 4,030 Kg. Urriak 12. Gurasoak: Mikel (Bergara) eta Noelia (Bergara). Argazkian: Miren izebaren besoetan eta Mª Asun amanorekin.



**Lorena Diez Centeno**
Bergara • 3,410 Kg. Urriak 13. Gurasoak: Jose Jabier (Bergara) eta Josefina (Badajoz). Argazkian: Lorena gurasoekin eta Eloi eta Iban anaiekin.



**Xabier Arrasate Lasa**
Elgeta • 3,860 Kg. Urriak 13. Gurasoak: Ibon (Ondarroa) eta Idoia (Eibar). Argazkian: Xabier amaren besoetan, kamara begiratzeko ahaleginetan.



**Ane Odriozola Zubia**
Oñati • 4,024 Kg. Urriak 14. Gurasoak: Fernando eta Mireia (Oñati). Argazkian: Ane aitaren besoetan, buruko txano eta guzti.



**Maddi Pampin Pazos**
Arrasate • 3,800 Kg. Urriak 14. Gurasoak: Jose Manuel (Arrasate) eta Alejandra (Gasteiz). Argazkian: Maddi bapo lo, eskuetan dutela.

## Hildakoak

**Antonio Carmona Segovia**
Arrasaten, urriaren 14an.

**ESKELAK**
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN
82 euro
**943 25 05 01**

Zoriondu ARRASATE IRRATIAn



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**
*irratia@goiena.com* helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAn

FM107.7
ARRASATE IRRATIA

## Gaur irratian

### Arrasate Irratia
FM 107.7

**'Igo autobusera' | 09:00**

**Nafarroa Oinez eta Bertso txapelketa**

Nafarroa Oinezen biharamunean, Mikel Agirre, jaiaren komunikazio arduradunarekin egingo dute berba irratiko kideek. Horrekin batera, Unai Bergaretxe Arrasateko bertsozaleak, Euskal Herriko Bertso Txapelketaren asteburuko kronika egingo du.

### Oñati Irratia
FM 107.4

**'Neguko saioa' | 12:00**

**Etorkinen gainean, UGTko arduradunarekin**

Oñati Irratiko kazetariak elkarrizketa egingo dio UGTko kide Ainhoa Zioardiari. Zioardiak UGTk etorkinendako Arrasaten daukan zerbitzua zuzentzen du. Etorkinek zer premia duten, zer kezka dituzten, zer egoeratan dauden eta abar aztertuko dute.

### Loiola Irratia
FM 99.8

**'Kalez kale' | 12:00**

**Goierriko 'Sustraiez blai' munduko kultura topaketa**

### Radio Euskadi
FM 98.2

**'Boulevard' | 11:10**

**Fernando Canales nekazaritza ekologikoaz**

### Euskadi Irratia
FM 104.4

**'Faktoria' | 10:30**

**Emakumeen Mundu Martxa Burkina Fassotik**

## Gaur telebistan

### GOITB



**Kirmen Uribe izango da 'Ilunpean'**
**15:47**
Oihana Elortza oñatiarrak Kirmen Uribe idazlea izango du gaur arratsaldean kameren aurrean.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: *Reporter Blues.*
**13:45** Gaurkoak.
**14:47** Behazulo saioa.
**14:15** Eltze beroa sukaldaritza saioa.
**14:30** Eguraldia eta zerbitzuak.
**14:35** *Lazkao Txiki.*
**14:45** Albistegi aurrerapena.
**15:00** Bidetxurretik.
**15:30** Eguraldia eta zerbitzuak
**15:35** *Lazkao Txiki.*
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ilunpean.
**16:15** Klip@.
**16:30** Eguraldia eta zerbitzuak.
**16:35** *Lazkao Txiki.*
**16:45** Albistegi aurrerapena.
**17:00** Didjeridu.
**17:30** Motzean eta Zera dio.
**17:45** Albistegi aurrerapena.
**17:47** Berbaire.
**18:15** Jaun eta Jabe.
**18:45** Albistegi aurrerapena.
**19:00** Klip@.
**19:15** 16mm.
**19:45** Berriak.
**20:15** *Reporter Blues.*
**20:45** Albistegia.
**21:15** Harmailatik.
**21:45** Berriak.
**22:15** Harmailatik.
**22:45** Albistegia.
**23:00** Jazz Zikloa.
**23:30** Eltze beroa sukaldaritza saioa.

### ETB 1



**Oihanetan azaltzen diren goi-lautadak**
**15:20**
Guayanako, Brasilgo eta Venezuelako oihanetan dauden goi-lautaden berri *Bidaide*-n

**06:55** Tik Tak Circus.
**07:25** Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia* eta *Montana.*
**09:10** Eklipse@.
**09:35** Bidaide. *Balea gorrien atzean.*
**10:25** National Geographic.
**11:15** Elkartasunaren bideak. *Etiopia: Malation tantak janarian.*
**11:50** Bertatik Bertara.
**12:30** Hitzetik hortzera.
**13:10** Betizu.
**14:00** Gaur Egun1.
**14:40** Postada.
**14:45** Eguraldia.
**14:50** Goenkale.
**15:20** Bidaide. *Mundu galdurantz.*
**16:15** National Geographic.
**17:05** Sustraia.
**17:35** E-Klipse@.
**18:00** Iparraldearen orena.
**18:05** Betizu.
**20:00** Gaur Egun.
**20:50** Eguraldia.
**21:00** Bertatik Bertara.
**21:45** Goenkale.
**22:25** Basetxea Gori-Gori.
**23:55** Eguna iruditan.
**00:00** Postdata.
**00:05** Sautrela.
**00:30** Kar Kar Kluba.
**01:00** Egi bidean.
**01:10** Bakarrik edo...
**03:10** Bertatik bertara.

### ETB 2



**Arrisku handiko ebakuntzak Filadelfian**
**00:00**
Luk ebakuntza arriskutsua egingo dio Halloween jaia ospatzen erre den neskatila bati.

**07:00** Del país de los vascos. *Telleriarte.*
**07:35** Rutas de solidaridad. *Venezuela II: Agua, muerte y recuerdos.*
**08:00** Embrujada.
**09:00** Forum.
**09:30** El Punto.
**10:05** La zona muerta. *Jugar a ser Dios.*
**11:00** Stargate. *La cumbre.*
**11:55** La cocina de Pedro Subijana.
**12:05** Se ha escrito un crimen.
**13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin.
**14:58** Teleberri1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
**15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
**16:00** Pásalo.
**18:05** Cine western.
**20:20** Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
**20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
**21:50** Eguraldia.
**21:55** Mi querido Klikowsky.
**23:00** Nip/Tuck: a golpe de bisturí. *Rose and Raven Rosenberg.*
**23:55** El día en imagenes.
**00:00** Doctoras de Filadelfia. *Injerto* eta *Reacciones adversas.*
**01:45** El elegido.
**02:40** Ésta es mi gente.

### TVE 1



**Ezagun berriak dantzarako gaitasunarekin**
**22:00**
Gaur esango dute nortzuk diren saio horretan esku hartuko duten hurrengo "dantzari" ezagunak.

**06:00** Canal 24 horas.
**07:00** Telediario matinal. Igor Gomezekin, Susana Rozarekin eta Salvador Martin Mateosekin.
**09:00** Los desayunos de TVE.
**10:15** Saber vivir.
**11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
**14:00** Informativo territorial.
**14:30** Corazón de otoño. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igartiburürekin.
**15:00** Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
**15:55** El tiempo.
**16:00** Amar en tiempos revueltos.
**16:45** Los plateados. telesail berria.
**17:30** Amarte así, frijolito.
**18:00** España directo.
**19:30** Vamos a cocinar... con Jose Andrés.
**20:15** Gente. Sonia Ferrerrekin eta Maria Jose Molinarekin.
**21:00** Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
**21:55** El tiempo.
**22:00** Mira quién baila.
**00:15** 59 segundos.
**02:00** Telediario 3.

### La 2



**Orson Welles zuzendariaren filma**
**22:30**
Zer da garrantzitsuagoa, artelana, ala artelan hori egin duen artista? eta faltsua bada?

**06:00** Euronews.
**07:00** Digimon Frontier.
**07:15** That´s english.
**07:30** Los Lunnis.
**09:30** Aquí hay trabajo.
**10:00** TV educativa: La aventura del saber.
**10:55** Diez lineas en el Quijote.
**11:00** Las chicas Gilmore.
**12:30** Padres en apuros.
**13:00** Los Lunnis. *Arthur y el fabuloso mundo de los hechizos.*
**15:15** Saber y ganar.
**16:00** Tenis. Madrilgo Master Series Txapelketa.
**18:00** Los Lunnis.
**19:25** Diez líneas de el Quijote.
**19:30** Informativo territorial.
**20:30** Deportes 2. Zona ACB.
**21:00** Apartamento de soltero.
**21:30** Miradas2.
**21:45** Sorteo de la Bonoloto.
**21:50** La 2 Noticias.
**22:25** El tiempo.
**22:30** ¡Qué grande es el cine! *Fraude.* Zuzendaria: Orson Welles. 1973. Aurkezleak: Oja Kodar, Orson Welles, Elmyr D´Hory.
**01:15** Los conciertos de radio3.
**01:45** A ciencia cierta.

### Antena 3



**Lisa Simpson izotz gainean hockey egiten**
**14:00**
Heziketa fisikoko ikasgaia gainditu ahal izateko, Lisak infantil mailako hockey taldean jokatu beharko du.

**06:00** Las noticias de la mañana.
**08:30** Ruedo Ibérico. Montserrat Dominguezekin.
**10:00** La mujer en el espejo.
**10:45** Cada día. Maria Teresa Camposekin.
**14:00** Los Simpson. *Lisa sobre hielo* eta *Homer, Homer, malo.*
**15:00** Noticias 1.
**15:45** El tiempo.
**15:55** El auténtico Rodrigo Leal.
**16:30** Pasión de Gabilanes.
**18:00** Estoy por ti. Anabel Alonsorekin.
**19:00** El diario de Patricia.
**20:15** ¿Quién quiere ser millonario?
**21:00** Noticias 2. Matias Prats eta J.J. Santosekin.
**21:30** El peliculón. *El oro de Moscú.* Zuzendaria: Jesus Bonilla. (2002). Aktoreak: Jesus Bonilla, Santiago Segura, Antonio Resines. Agure batek bere bizitzako azken momentuan zera kontatuko dio erizain bati: Gerra Zibilean errusiarantz bidali zuten Espainiako Bankuko urrea non dagoen gordeta.
**02:30** Noticias3.
**02:50** Televenta.
**05:00** Saioen errepikapenak.

### Tele 5



**Miami Beach husteko agindua 'CSI'-n**
**22:00**
Maremoto baten arriskua ei dago hondartzan, baina halako batean, hainbat hilketa izango dira.

**06:30** Informativos Telecinco matinal.
**09:10** La mirada crítica.
**10:45** El programa de Ana Rosa.
**14:30** Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorrorekin.
**15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
**16:30** Operación Triunfo.
**17:00** A tu lado. Emma Garciarekin.
**19:30** Allá tú. Jesus Vazquezekin.
**20:30** Informativos Telecinco.
**21:15** Camera Café.
**22:00** C.S.I Miami. *Ola de crimenes.*
**23:00** C.S.I New York. *Agente Blue.* Goiz baten, Central Parken turista bat eta saltzaile bat eztabaidatzen ari dira. Valasques polizia zaldi gainean azalduko da, baina norbaitek tirokatu egingo du.
**00:00** C.S.I. Miami. *No aterrizar* eta *Antecedentes.*
**02:20** Informativos Telecinco.
**02:30** Madrugada de cine. *Equipo Rojo.* Zuzendaria: Jeremy Haft (1999). FBIko polizia bikote batek hiltzaileak jarraitzen ditu.

## Astean GOITBn

### Astelehena, 17



**'Harmailatik' | 21:15**

**Asteburuko kirol hitzordu guztiak, gaur gauean**

Asteburuak futbolean, saskibaloian, eskubaloian eta gainontzeko kiroletan eman duenaren berri emango du Julen Iriondok gaur iluntzean, *Harmailatik* kirol saioan.

### Martitzena, 18



**Arotzen lanbidea | 17:47**

**Arotzen gaineko lanbidearen erreportajea**

*Arotzak: Artisauak burdingintzan* saioa eskainiko du GOITBk martitzen arratsaldean. Erreportajean, lanbide hori nolakoa den erakutsiko dute.

### Eguaztena, 19



**'Didjeridu' | 22:15**

**Yera Sanchez margolari aretxabaletarra**

Yera Sanchezek, besteak beste, azkenaldian buru-belarri ibili den proiektuen gainean egingo du berba. Horrekin batera, saioaren gainontzeko tarteak ere izango dira.

### Eguena, 20



**'16mm' | 17:00**

**Film labur gehiago '16mm'-n, eguenean**

Zuzendarien azalpenek lagunduko dute euskarazko film labur horiek hobeto ulertzen, eta berauek egiteko izandako zailtasunen berri emango dute protagonistek.

### Egubakoitza, 21



**'Behazulo' | 21:15**

**'Behazulo'-ren itzulera, egitura berriarekin**

Egitura bakarrik ez, Goiatz Aranak aurkezten duen saioak dekoratu berria ere estreinatuko du-eta. 'Behazulo'-k, baina, egunerokotasuna duten gaiak lantzen jarraituko du.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

Urriak 17a: 060 zozketa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 17, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Eskaintza:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**
**2005 osoko** harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

060
zozketa
saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).**
- Lurdes Arrue Aizpurua (Arrasate)
- Felix Hernandez Paunero (Arrasate)

**EIBAR-CASTELLO futbol partidua ikusteko sei gonbidapen (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).**
- Maribel Garro Gallastegi (Arrasate)
- Kontxi Ugalde Izeta (Bergara)
- Juan Antonio Unzurrunzaga Posada (Bergara)
- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Vicente Agiriano Jauregi (Eskoriatza)
- Kontxi Montes Rodicio (Arrasate)

## Urriaren 24ko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).







**ECRON**
musika-kate bat.

ASTELEHENEKO
# Goienkaria
Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate

**Egoitza nagusia:** **Bergara** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • *Posta-e: goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31**
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 *Posta-e: arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila**
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2**
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • *Posta-e: publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** S.S.-0088/04 • **ISSN**: 1697 3542
**HARPIDETZA:** 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
urriaren
17a

Goizean: Eguzkia eta lainoa
Arratsaldean: Eguzkia eta lainoa

# Hamarrekoa

**KIRMEN URIBE** | POETA

## "Lehorreko lagunari arraina prestatzen diot afaltzeko eta kostakoari, pasta"

Oihana Elortza

**1. Kirmen. Ezagutzen duzu beste inor izen horrekin?** Duela gutxi ezagutu dut mutiko txiki bat, baina bera da bakarra.

**2. Nork aukeratu zuen?** Gure amak. Venezuelako erbesteratu batzuek euskal izenen zerrenda bat bidali zuten eta gure amari horixe gustatu zitzaion. Egia esan, konplexu pixka bat ere izan nuen garai batean, askotan bi aldiz esan behar nuelako izena, baina dagoeneko badu bere nortasuna eta gustatzen zait.

**3. Denbora luzez egoten zen aita itsasoan arrantzan?** Bai, eta 17-18 urterekin hasten zara konturatzen aitaren figuraz, arduraz.

**4. Joan zara arrantzara zu inoiz?** Itsasontzi handian eta urruti ez, baina arrantza asko gustatzen zait eta kanaberaz ibili izan naiz, bai. Baita motordun batel txikiarekin ere.

**5. Arraina edo pasta prestatzen diezu lagunei afaltzeko?** Lehorrekoak badira, arraina, eta kostakoak badira, berriz, pasta.

**6. Ondarroakoa edo Gasteizko arraina da gozoagoa?** Biak, berdinak dira eta. Arrandegira noanean beti galdetzen diot saltzaileari ea arrain freskorik duen eta nondik datorren. Eta badaezpada ere, Ondarroakoa naizela ere esaten diot.

**7. Zer moduz ibili zarete New Yorken?** Birritan egon gara, 2003an eta aurten, eta bietan ibili gara ondo. Psikiatra bat eta poeta bat egon ziren behin gure ikuskizuna ikusten. Psikiatrak esan zigun euskaraz jakin ez arren, ulertu zuela gure mezua; poetak, berriz, testuko hitzak irakurri zituen eta *X* asko zituela ikusi zuenean, euskarak altxorraren bila joateko mapa dirudiela esan zigun. Asko gustatu zitzaidan iritzi hori.

**8. Zenbat aldiz egon zara San Mamesen?** Askotan, Mikel Valverde lagunaren anaiak Athletic entrenatzen zuenean, adibidez. Baina bufanda barik joaten naiz, *paisanoz*. Zapatu iluntzeko partidak atsegin ditut.

**9. Zer musika entzuten duzu, Mikel Urdangarinen diskoak alde batera utzita?** (Kar, kar, kar). Rock eta pop anglosaxoia asko gustatzen zaizkit, adibidez. Baita euskal musika ere, noski.

**10. Nola heldu zitzaizun poesia?** Kantuen bitartez. Ordu asko egiten nuen gure amandrearekin eta asko abesten zuen hark. Hitzen arteko jolasarekin ohartu nintzen behin.



OIHANA ELORTZA

**Ondarroakoa da Kirmen Uribe, baina Gasteizen bizi da Euskal Filologia ikastera joan zenetik. Italian urtebete egin zuen eta handik bueltan erabaki zuen idatzi egin nahi zuela berak. *Bar Puerto* ikuskizuna egiteko, irudiak gehitu zizkion musikari eta antzerkiari, eta horregatik, ikuskizun berrien sortzailea bera dela diote askok. Beretako zein oparitzeko erosten ditu liburuak.**



**Biharamuna**

Iban Arantzabal

## Ilarak eta gu

Asteburu honetako auto ilarek poztu egin naute. Hi Iban, zoratuta hago? Auto ilarek poztu? Ba bai! Altsasura jende uholdea joan da Nafarroa Oinezera, **Iñigo Aritza** ikastolakoei laguntzera. Aurten ere han izan gara gu, zapatuko gaugiroa usaindu, lo egin eta domekan ibilbidea. Ondo antolatutako eguna: Zori**oinkn**ak nafarrei!

Bestelakoak dira **Leire Kortabarria**k *Goienkaria*n gogorarazi dizkigun ilarak. 'Gurutze-bidea' jarri du titularrean eta ez da gutxiagorako. EAEko autobide sarean %3,5 egin du gora trafikoak 2004an, Arrasaten 61.000 auto egunero hara eta hona, langileek-eta ordu erdi lehenago irten behar dute sasoiz heltzeko, ezagutzen dut ordutegia moldatu duenik goizeko ordu geldo horiek ez sufritzeko. Fagorreko parking handietan autoa uzten duten **Aitor Irure** (Fagor Automotion) eta **J.A. Alustiza**ren (Fagor Arrasate) kexa-berbak ere irakurri ditut erreportaje horretan.

Azpiegitura berriak egin, aparkalekuak handitu eta bideak zabaldu eta zabaldu jardutea ez da irtenbidea. Eusko Jaurlaritzaren 2002ko plan estrategikoan ere jasotzen da ez dela bidea. 700 milioi euro inbertitu dira asfaltoan, alperrik. Irtenbideak bakarra dirudi: autoa gutxiago erabiltzea. Horretarako ezinbestekoa garraio publikoa serio bultzatzea. Gizarte azeleratu honek harriz betetako motxila bi laga dizkigu: ilarak dira bata; autoak bestea. Bueno, badago hirugarren motxila pisutsu bat: gu.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

7505 zenbakira

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO1
Txus (La Polla) | TXUS
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL

SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
Irrintzia | IRRINTZI
Txalaparta | TXALA

JOKOAK (4 sms)
BOINK
NEUTRON2
RALLYDELUXE
FUTVOLEY
NOR
SOBALL
Eskuratzeko modua:
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA
7505 zenbakira
Prezioa: 3,6 +BEZa

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com